



**2015-2020KO LANEKO
SEGURTASUN ETA
OSASUNERAKO
EUSKAL
ESTRATEGIAREN
BITARTEKO
EBALUAZIOA**





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Izenburua: “2015-2020ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren” bitarteko ebaluazioa. 2018. urtea.

Argitalpena: Barakaldo, 2019ko ekaina

© OSALAN - Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Argitaratzailea: OSALAN - Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita bidea z.g., - 48903 Barakaldo (Bizkaia)

Internet: www.osalan.euskadi.eus



2015



**LANEKO SEGURTASUN
ETA OSASUNERAKO EUSKAL**

ESTRATEGIA

**VASCA DE SEGURIDAD
Y SALUD EN EL TRABAJO**

2020

**2015-2020KO LANEKO SEGURTASUN ETA
OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIAREN BITARTEKO
EBALUAZIOA**

2018. urtea





AURKIBIDEA

1 AURKEZPENA 1

2 JUSTIFIKAZIOA ETA METODOLOGIA..... 2

2.1	AURREKARIAK.....	2
2.2	HELBURUAK.....	2
2.3	NORAINOKOA.....	2
2.4	METODOLOGIA.....	2

3 2015-2020KO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIAREN BERRIKUSPENAREN EMAITZA 4

3.1	LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOAN IZANDAKO ALDAKETA NAGUSIEN ETA EGOERAREN AZTERKETA, GENERO-IKUSPEGIA ERABILITA.....	4
3.1.1	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA.....	4
3.1.2	ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA.....	5
3.1.3	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ENPRESETAN ETA LANTOKIETAN.....	5
3.1.4	ARAUDIA BETETZEA.....	16
3.1.5	OSASUNERAKO KALTEAK.....	17
3.1.6	INFORMAZIO-SISTEMAK.....	27
3.1.7	EUROPAKO ESPARRUA	27
3.2	ZEHAZTUTAKO KONTZEPTU-ESPARRUAREN ETA IKUSPEGIAREN BALIOA	29



3.2.1	KONTZEPTU-ESPARRUAREN INDARRALDIAREN BALIOESPENA.....	29
3.2.2	IKUSPEGIAREN INDARRALDIAREN BALIOESPENA.....	29
3.3	LAN-ILDOAETAN GAUZATUTAKO JARDUKETAK	31
3.3.1	1. ARDATZA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA.....	31
3.3.2	2. ARDATZA. LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTZEA ETA HEDATZEA.....	32
3.3.3	3. ARDATZA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEATZEA	34
3.3.4	4. ARDATZA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK.....	36
3.4	HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA OPERATIBOEN BETETZEA	38
3.5	BALANTZEA ETA PROPOSAMENAK.....	42
3.5.1	2015-2020KO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIAREN BALANTZEA.....	42
3.5.2	PROPOSAMENAK.....	42



1 AURKEZPENA

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia prestatzeko helburua izan zen gure gizarteak 2015-2020 aldian politika ordenatu eta eraginkor bat izatea, laneko arriskuen prebentzioa EAEko gizartearen ezaugarri kultural moduan finkatzea lortzeko, ulertuta lan-ingurune osasungarriak sortzea bizitza osasuntsua izatearen zati bereizezina dela. Helburu horretarantz egiteko, helburu estrategikoak, jarduera-ardatzak eta lan-ildoak erabaki ziren, helburu lorgarri eta neurgarriak ezarrita.

Estrategiaren indarraldiaren erdia gaindituta, 2018a garaia zen bitarteko emaitzak ebaluatzeko, eta jarduerak birbideratzeko egoera posible berrien aurrean, dihardugun ingurunean aldaketa handiak izaten baitira lan-, ekonomia- eta gizarte-esparruetan. Xedea, ez gehiago ez gutxiago, bide onetik goazen jakitea da, eta gizarte, enpresak eta administrazioak prestatuta egotea, arrisku berriei aurre egiteko, eta lana pertsonen gaitasun eta baldintzetara egokitzeari ekiteko. Adibidez, emakumeak lan-merkatuko sektore guztietan gero eta gehiago sartzea, teknologia berriak agertzea eta antolatze eta kudeatzeko bide berriak funtsezko kontuak dira, sakondu beharrekoa, une bakoitzean prebentzio-neurri egokiak proposatu ahal izateko eta, horrenbestez, lan egiten dutenen osasuna eta segurtasuna zaintzeko.

Bada, hona hemen emaitza. Esku artean dauzkagu, alde batetik, Osalaneko adituek egindako azterketa sakona, eta, bestetik, Administrazioeko eta kanpoko zenbait eragilek strategiaren betetzeaz egindako ebaluazioa. Horretatik guztitik ondoriozta daiteke ezen, helburuak asmo handikoak izanda ere, irmo egiten ari garela hasieran aipatu dudako egoeraranzko bidea. Baina, are garrantzitsuago, azterketari esker badakigu zer hobetu zenbait helburu eta jarduera-ildoren planteamenduan, eta, horregatik, birbidera ditzakegu, planteamendu hobeak egiteko.

Berrikuste eta eguneratze hori, bestalde, ezinbestekoa da begirunea eta esker ona adierazteko Osalanen lan egiten dutenei, bai eta Euskadin lan egiten dugunontzat hobekuntzak egiten jarraitzeko hainbesteko laguntza ematen diguten patronalei, sindikatuari, elkartei eta administrazioei ere. Bereziki aipatu nahi nituzke Osalaneko Kontseilu Nagusian parte hartzen duten kideak eta haiek egiten duten lana prebentzioaren alde.

Laburbilduz, bitarteko azterketa hau abiapuntu berria da, aurrerantzean ere ahaleginak bilduta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren helburuak lortzeko, azken batean, gizarte osoarekin dugun konpromisoa baita.



Alberto Alonso Martín.

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia



2 JUSTIFIKAZIOA ETA METODOLOGIA

2.1 AURREKARIAK

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia 2015eko martxoan abiatu zen, eta, laneko segurtasunari eta osasunari dagokionez, eragileen eta, bereziki, EAEko Administrazioaren jarduerak antolatzen tresna da. Orduz geroztik, estrategian zehaztutako lan-ildoen garapenean aurrera egiten ari da, jarritako helburuak lortzeko ahaleginean, jomuga izanik Euskal Autonomia Erkidegoan 2020an laneko arriskuen prebentziorako nahi den ikuspegia.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian, zenbait alderdi azpimarratu nahi dira: jardueren jarraipena eta emaitzen ebaluazioa egiteko premia da horietako bat. Horretarako, strategiaren aurrerapenaren ebaluazioari ekin zitzaion 2018an, strategiaren indarraldiaren erdian, helburuak berrikusi, jarduerak birbideratu eta litezkeen egoera-aldaketetara egokitzeko.

2.2 HELBURUAK

Ebaluazio honen bidez jakin nahi da zer-nolako arrakasta izan duten hartutako neurriek eta zer neurritan bete diren adierazitako konpromisoak, informazio hori gizarteari helarazteaz gain. Helburua, beraz, bikoitza da:

- Informazioa ematea kudeaketa eta politika publikoei buruzko erabakiak hartzeko ardura duten pertsonen eta entitateen, neurriak proposatu ahal izan ditzaten aurkitutako desbideratzea eta/edo disfuntzioak eteteko, eta helburuetan edo jardueretan aldaketak planteatzeko, emaitzak edo egoera-aldaketak ikusita.
- Eragile ekonomikoei, sozialei eta, oro har, herritarrei egindako jarduerak zer eragin izan duen eta hartutako konpromisoak zer neurritan bete diren jakinaraztea.

2.3 NORAINOKOA

Berrikuspenaren norainokoak honako alderdi hauek biltzen ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan laneko arriskuen prebentzioaren egoerak izandako bilakaera eta egoera-aldaketa garrantzitsuak.
- 2015ean ezarritako kontzeptu-esparruaren eta ikuspegiaren balioa.
- Lan-ildo eta garatutako jarduera nagusiak.
- Helburuak lortzeko bidean aurreratutakoa, eta espero zenarekiko desbideratzeak.
- Egindako kudeaketaren balioespena eta aurkitutako disfuntzioak.
- Estrategian eta/edo betearazpenean egin beharreko aldaketak.

Genero-ikuspegiarekin berrikusi nahi da Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia, aztertuta strategiak eragin bera duen emakumeengan eta gizonengan, desparekotasunak murrizten laguntzen duen eta nola hobe daitekeen eragin hori.

2.4 METODOLOGIA

Osalaneko adituek egindako azterketan oinarritu da Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren ebaluazioa, eta Administrazioako zein Administrazioetik kanpoko eragileek helarazitako



balioespena ere baliatu da. Lehendabizikoen kasuan, galdetegi bat beteta jaso da esan dutena. Esan duten guztia batuta lortutako zirriborroa kanpo-eragileei eskuetaratu zaie, eta egin dituzten ekarpenekin osatu dira berrikuspen honetako ondorio nagusiak.



3 2015-2020KO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIAREN BERRIKUSPENAREN EMAITZA

3.1 LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOAN IZANDAKO ALDAKETA NAGUSIEN ETA EGOERAREN AZTERKETA, GENERO- IKUSPEGIA ERABILITA

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan laneko arriskuen prebentzioaren esparru nagusietan dagoen egoera eta azken hiru urteetan izan duten bilakaera gainbegiratzen da.

3.1.1 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA

Laneko arriskuekiko **herritarren** kezka areagotu egin da. Era berean, hain nabarmenki izan gabe ere, jakintza eta sentsibilizazioa handitu egin dira gaixotasun profesionala izateko arriskuari dagokionez.

Lantokietan, enpresaburu eta langileen zati batek gero eta barneratuagoa du prebentzioa, baina oraindik alde handiak daude enpresa handien eta txiki nahiz ertainen artean, bai eta sektoreen artean ere. Krisiaren aldirik txarrena gaindituta badago ere, krisiaren ondorenak ez dira desagertu, laneko baldintzei eta egiturazko aldagaiei dagokienez, eta ez dute laguntzen laneko segurtasun- eta osasun-arloan aurrera egiten.

Administrazio publikoek laneko segurtasunari eta osasunari dagokienez duten aitzindaritzak aurrera egin du, konpromisoa handiagoa hartu baitute herritarrei laneko arriskuen prebentzioa lan egiten duten pertsonen eskubide bat eta enpresa-bikaintasunaren ezaugarri bat dela jakinarazteko ahaleginean.

Hezkuntza-maila guztietan laneko segurtasunari eta osasunari buruz ikasi behar delako kontzientzia gehiago zabaldu dela nabaritzen da. Aurrerapauso hori begi-bistakoagoa da Lanbide Heziketan eta zenbait unibertsitate-ikasketatan, bereziki EAEko lehen sektorean, nekazaritza-, abeltzaintza eta basogintza-esparruetako lanbide-heziketako nahiz itsas arrantzako eskolen bidez.

Komunikabideek laneko arriskuen prebentzioari ematen dioten trataerari dagokionez, bilakaera ona da, laneko istripuei eta jatorria lanean duten gaixotasunei buruz informatzen jarraitzen dutelako, albiste direlako jakina denez, baina, gainera, prebentzioaren beharrari buruzko mezuak eta laneko arriskua desagerrarazteko edo txikitzeko gomendioak ere jasotzen dituzte.

Hala ere, laneko segurtasun eta osasunari buruzko **gizarte-ikusmoldea** oraindik ere oso partziala da, oso maskulinizatuta dauden sektore tradizionaletako laneko istripuari lotuta jarraitzen duelako. Nolanahi ere, genero-ikuspegia administrazioetan gero eta gehiago zabaltzea eta gehienbat feminizatuta dauden sektore batzuetako langile-kolektiboak (familia-etxearen zerbitzuko langileak, gela-zerbitzariak...) gizartean egiten ari diren presioa oso lagungarriak izaten ari dira argi uzteko beharrezkoak direla ekite espezifikoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzko ikusmoldea zabaltzea.



3.1.2 ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA

Administrazioen arteko lankidetzari eta itunei dagokienez, aurrerapauso handiak izan dira, baina oraindik zer egin franko dago lehentasunak eta proiektuak partekatzeko; izan ere, laneko arriskuen prebentzioa transbertsala da, eta eskumenak administrazioen artean banatuta daude.

Aipatzekoa da Lan eta Justizia Sailak Osalanekin duen konpromisoa, bai eta Osasun Sailaren, Emakunderen eta lehen sektorean eskumena duten organoen arteko lankidetzari ere.

Gizarte-**eragileen arteko lankidetzari** dagokionez, eztabaidaezina da laneko arriskuen prebentzioaren sustapenean duten inplikazioa, Osalaneko Kontseilu Nagusian parte-hartzea aktiboa izan bada ere, batzuetan lehentasunek ez dute bat egiten, eta horrek beraien arteko eta Administrazioarekiko lankidetzari zailtzen du. Bost langiletik batek ez dauka hitzarmenik, eta arazoak daude elkarrizketa sozialerako, laneko arriskuen prebentziorako batzordeetan ere gertatzen direnak.

Langileen % 36,4k baino ez du hitzarmen kolektiboa indarrean, eta langileen % 45,1 indarraldia luzatuta eta berritzeke daukan hitzarmen batek babesten du. Datu horiek adierazten dute negoziazio kolektiboaren egoera eskasa dela, eta zaila dela negoziazio bidean dauden hitzarmen kolektiboetan sartzea prebentzio-neurriak eta osasuna sustatu eta zaintzarekin zerikusia dutenak.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaia indartu da, **3/2019 Dekretua, urtarrilaren 15ekoa**, EAEn **Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzeko** onartuta, baina sindikatu batzuk ez daude nahita mahai horretan, Osalaneko Kontseilu Nagusian gertatzen den bezala izan arren. Beraz, nabarmentzekoa da CCOO eta UGTk lan-arriskuen prebentziorako politiketan duten konpromisoa, Confebask eta Konfekoor ere aipatzekoak dira egiteko horretan.

Lehen sektorearekin zerikusia duten profesionalek eta gizarte-eragileek “2019-2025eko Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala” egiten parte hartu dute.

Estatuan, negoziazio kolektiboa desblokeatu da, eta 2017an hitzarmenak onartu dira laneko segurtasun eta osasunerako garrantzitsuak diren sektore batzuetan; besteak beste, eraikuntza eta metalgintzan.

Negoiazio kolektiboan ez da handitu hitzarmenetan arriskuen prebentziora dagokionez genero-ikuspegiarekin ezarritako berdintasun-klausulen kopurua.

Hala ere, arazo nagusia lantaldeen neurria dela-eta babesgabetasun handiena duten enpresa eta sektoreetan dago, eta estaldura sindikalik ez izatea ere gehitu beharko litzateke.

3.1.3 LANeko ARRISKUEN PREBENTZIOA ENPRESETAN ETA LANTOKIETAN

Ez da aurrerapauso adierazgarririk izan **laneko arriskuen prebentzioa kudeaketan sartzeari** dagokionez, eta egoera hori larriagotu egin da enpresa txiki eta ertainetan, prebentzioaren ondoriozko dokumentuzamatzak gaindituta jarraitzen dutelako. Txertatze hori, gainera, defizitariora da genero-ikuspegiarekin alderatuta.

Arau-betetzeak dokumentu formalak ekarri ohi ditu berekin, enpresa bakoitzaren errealitate zehatzera behar bezala egokituta ez daudenak eta, beraz, gutxi balio dutenak prebentzio efikaza egiteko.

Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa kanpora ateratzea da **prebentzioa antolatze**ko lehentasunez baliatzen den **aukera**, batez ere enpresa txiki eta ertainetan eta zenbait sektoretan.

AZTERKETA JARDUERA-SEKTOREKA

Lehen sektorea

Lehen sektorean bilakaera ona baina motela da laneko segurtasun- eta osasun-arloko sentsibilitatean, eta ez da maila berekoa sektorea osatzen duten azpisektore eta jarduera guztietan.



Arrantza tradizionalan, oraindik ere handia da arriskuaren eta istripuaren tolerantzia- eta onarpen-maila, baina ezbehar-tasak gero eta gehiago kezkatzen du arrantzaren gizarte-ingurunea. Sektoreak eskaintzen diren prebentzio-neurri eta -irtenbideak balioesten ditu, ez bakarrik arrantzaren diharduen kolektiboaren lan-baldintzen hobekuntzari dagokionez, bai eta portuan gehienbat emakumeen bidez egiten diren jardueretan laguntzen duten langileen lan-baldintzak hobetzeari dagokionez ere.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueran aurrerapauso handiak izan dira. Prebentzioaren kultura sustraitzen ari da, eta gero eta ustiategi gehiagok aukeratzen dute prebentzioa profesionalekin kudeatzea, jarduera hobeto ezagutzen duten zerbitzu mankomunatuak baliatuta.

Basogintza-jarduera egituratuago dago, eta prebentzioa gehiago sartuta dago kudeaketan, baina ezbehar-tasak handiak dira oraindik, batez ere istripu larri eta hilgarriei dagokienez.


Esparru horietan, emakumeak langile eta ustiategien titular moduan behar baino gutxiago ordezkaturik egoteak are eragin kaltegarriagoa du kolektibo horrentzat prebentzioaren kudeaketa egokian, eta, askotan, prebentzio-jardueratik kanpo geratzen da.

Baja eragin duten laneko istripuak lehen sektorean. Intzidentzia-indizea. EAE

(istripu kopurua arriskuaren eraginpean batez beste dagoen pertsona kopuruarekin alderatuta x 1000)


(Iturria: Osalan)

Lanaldian





In itinere



Eraikuntza-sektorea

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, sektorearen egoera ezer gutxi aldatu da 2015etik. Suspertze ekonomikoak eta herri-lanak emendatzeak jarduera handitzea ekarri dute berekin, baina horrekin batera ez da gertatu laneko segurtasuna eta osasuna ageriki hobetzea. Izan ere, mahaiaren gainean dagoen neurrietako bat da klausula sozialak sartzea lizitazio publikoan, eragina duelako laneko osasun eta segurtasunaren eta lan-baldintzen hobekuntzan.

Eraikuntza-sektorean, besteak beste honako faktore hauek dira kaltegarriak laneko segurtasun eta osasunerako: prekaritatea, erritmo biziak, lanaldi luzeak, informazio urria, plangintzarik eza, iraupen gutxiko lanak, lan-baldintzen aldakortasuna eta azpikontratazio-maila handiak.

Oso maskulinizatuta dagoen jarduera bat denez, garrantzitsua da lan-estrategietan kontuan hartzea generoaren eragina, eta ahalegintzea sektorean dauden emakumeen egoera identifikatzen.






Baja eragin duten laneko istripuak eraikuntza-sektorean. Intzidentzia-indizea. EAE



(istripu kopurua arriskuaren eraginpean batez beste dagoen pertsona kopuruarekin alderatuta x 1000)


(Iturria: Osalan)

Lanaldian



In itinere





Industria-sektorea

Sektore industrialean ere ez da asko aldatu 2015etik hona laneko arriskuen prebentzioaren egoera, segurtasun-arriskuak gutxitzen ari badira ere, beste arrisku batzuek iraun egiten dutelako, ez baitaie behar bezala aurre egiten; besteak beste, arrisku higienikoek, ergonomikoek eta psikosozialek.

Oraindik ere alde handia dago enpresa handien eta txikien artean; lehenetan, kontuan hartzen hasi dira bide-segurtasuna, adikzioak, ohitura osasungarriak, genero-ikuspegiaren txertatze hasi berria eta abar, baina enpresa txiki eta ertainetan prebentzioaren dokumentu-kudeaketa oraindik ahalegin handia da.



Lehen sektorean eta eraikuntzan gertatzen den bezala oso maskulinizatuta dagoen jarduera bat denez, garrantzitsua da lan-estrategietan kontuan hartzea generoaren eragina, eta ahalegintzea sektorean dauden emakumeen egoera identifikatzen.


Baja eragin duten laneko istripuak industria-sektorean. Intzidentzia-indizea. EAE

(istripu kopurua arriskuaren eraginpean batez beste dagoen pertsona kopuruarekin alderatuta x 1000)




(Iturria: Osalan)

Lanaldian





In itinere



Zerbitzu-sektorea

Sektore nagusia da EAEko ekonomian, biztanle landunen bi heren biltzen baititu –emakumeen kasuan, landunen ia % 90ek zerbitzuen sektorean lan egiten du–, eta askotariko jarduerak hartzen ditu barruan, laneko arriskua prebenitzeko arazo desberdinak dituztenak. Eta hala, jarduera batzuetan segurtasun-arriskuak garrantzitsuak dira, hala nola errepideko garraioan, eta beste batzuetan, berriz, arrisku ergonomikoak eta psikosozialak dira nagusi, hala nola osasun-arloan, jarduera gutxi egituratuak dituztenetan (ostalaritza), edo etxearen inguruneko lanean, non laneko arriskuen prebentzio-arloko arau-estaldura urriak prebentzio-politika efikaza zailtzen baitu.

Jarduera horietako askotan, esparru feminizatua izan arren, arriskuak genero-ikuspeirik gabe aztertzen eta lantzen dira.

Azpimarratu beharra dago gure lurraldean turismoak egun bizi duen gorakada handia. Horrekin batera kalitatezko enpleguak sortu behar ziren, kalitatezkoak, neurri egokiak erabilita lan-baldintzak hobetuko



dituzten kalitateko enpleguak eta neurri egokiak hartu laneko arriskuen prebentzioaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik.


Era berean, garrantzitsua da kontuan hartzea administrazioen ikuskaritza- eta kontrol-lanen zati batek zeharkako eragina duela zerbitzuen sektoreko lan-baldintzen hobekuntzan; adibidez, etxeko etxeko laguntza-eginkizunak betetzen dituzten, etxeko lana egiten duten eta adindunak eta mendekotasuna dutenak zaintzeko lekuetan lanean diharduten langileen lan-baldintzengan.

Baja eragin duten laneko istripuak zerbitzuen sektorean. Intzidentzia-indizea. EAE


(istripu kopurua arriskuaren eraginpean batez beste dagoen pertsona kopuruarekin alderatuta x 1000)


(Iturria: Osalan)

Lanaldian



In itinere





Administrazio publikoa

Aldeak badaude ere administrazioko mailen artean, oro har baliabide eskasia dago prebentzio-egiturak garatzeko, eta prebentzio-planak gutxi ezarrita daude. Kontu batzuetan, besteak beste arrisku higieniko, ergonomiko eta psikosozialen trataera txarrean nahiz enpresa-jardueren koordinazioan, Administrazioa enpresa gehienen maila berean dago, kontuan hartuta, gainera, ez duela jasaten ikuskaritza-jardunaren ondorioak. Bitartekotasun-maila handiak, egituren malgutasun txikiak, funtzio publikoa arautzen duen legediak ezarritako mugek eta abarrek laneko arriskuen prebentzioari buruzko legea betetzeko zailtasuna areagotzen dute.

Berdintasunari dagokionez, aurrerantz egin da Eusko Jaurlaritzan, 2016an Gobernu Kontseiluak EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako emakume eta gizonen berdintasunerako I. Plana onartu zuelako, eta bertan prebentzio-politikaren diagnostikoa egiten delako genero-ikuspegia baliatuta, hurrengo urteetan zehar laneko osasun- eta prebentzio-politikari dagokionez zazpi neurri planteatzeaz gain.

Bestalde, prebentzio-irizpideak astiro ari dira aurrera egiten administrazio publikoen erabakietan eta politikeetan, traktore-efektu ahula izanik enpresa eta erakundeetan.

BIZTANLE LANDUNEN ARABERAKO AZTERKETA

Biztanle aktiboak gero eta askotarikoagoak izatea da oraino egoeraren ezaugarria, eta hori kontuan hartu beharrekoa da laneko arriskuen prebentzioaren etorkizuneko erronkei heltzean: zahartzea, emakumeak gero eta gehiago sartzea lan-merkatuan eta nagusiki gizonak aritu ohi diren sektoreetan, migrazioa, enplegu eta lan prekarioak, lan-harreman berriak...

Sexuaren arabera

Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan sartzea hasi da agertzen prebentzio-arloan heldu beharreko kontuen artean.

Gero eta adostasun zabalagoa dago honako hauek direla eta: genero-joerak daude laneko osasunaren azterketan; emakumeen eta gizonen arriskuekiko esposizioa desberdina da lan-merkatuaren segregazio horizontal eta bertikalaren ondorioz; ez daude behar bezala baloratuta emakumeek egin ohi dituzten lanei lotutako arriskuak; generoak eragina du arriskuaren pertzepzioan eta kudeaketan; sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena; eta abar. Kontu horiek guztiak estrategiaren luze-zabal osoan jaso behar dira, jarduera espezifikoak izateko behar denean.

Era berean, haurdunaldiko eta edoskitzaroko arriskuari dagokion berariazko arauketa gorabehera, oraindik zer ibili badago, arrisku horiei erantzun hobea emateko.



Azkenik, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia genero-ikuspegitik aztertzeak adierazten digu sexuaren arabera azterketa ez dela bakartuta egin behar atal espezifiko soil batean; aitzitik, transbertsala izan behar du, eta aztertutako aldagai guztiakin gurutzatu behar da, estrategiaren beraren atal eta alderdi guzti-guztietan.

Adinaren arabera

Biztanle aktiboen zahartzea, zeina bizi-itxaropena handitzearen eta jaiotza-tasa txikitzearen ondorio baita, mahai gainean dago oraindik ere, eta gero eta premiazkoagoa da arazoari heltzea. Europako herrialdeek duten arazo sozioekonomiko bat izaki, dauzkan alderdietako bat da nola eragiten dion lan-merkatuari eta zer ondorio dituen laneko arriskuen prebentzioari dagokionez.

Aldi batean egoera agerian jarri eta jarduteko premiazko beharraz ohartarazten hasi ondoren, orain jardute hori gauzatu behar da, zahartze aktiboa eta osasungarria lortzeko, guztiz indarrean daudelarik estrategian, zahartze-prozesuaz den bezainbatean arriskuak aztertzeari buruz eta lekuak, ekipamenduak eta lanaren antolaketa egokitzeko neurriei buruz planteatzen ziren erronkak. Zahartze-esperientzia, gainera, desberdina da gizon eta emakumeentzat kontu biologikoengatik, baina batez ere testuinguru soziokulturalagatik, eta kontuan hartu beharko da hori prebentzio-estrategietan.

Dibertsitate funtzionalaren arabera

Estrategian dibertsitate funtzionalaz aurkeztutako diagnostikoa oraindik ere baliozkoa da.

Euskadin dibertsitate funtzionala duten biztanleen jarduera-tasa Estatu osokoa baino handiagoa da, baina okupazio-mailek gainerako biztanleenak baino txikiagoak izaten jarraitzen dute.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonak batez ere enplegu babestuko zentroetan daude enplegatuta, eta oraindik ere erronka handia da pertsona horiek enplegu arruntetan sartzea, eta laneko segurtasun- eta osasun-politikak dauzkaten egoera berezietara egokitzea, enplegu batzuetan bezala besteetan ere.

Garrantzitsua da jardunbide egokiak identifikatzea enplegu babestuko enpresetan, enplegu arrunteko enpresek erabil ditzaten.

Gainerako biztanleen artean bezala, dibertsitate funtzionala duten biztanleen artean ere dauka eragina generoak, eta eredu berak errepikatzen dira lan-prekaritateari eta segregazio bertikal eta horizontalari dagokienez, eta desberdintasun horiek, ondorioz, eragina dute dibertsitate funtzionaleko gizon-emakumeen laneko osasun eta segurtasunean.

Jatorrizko lekuaren arabera

Suspertze ekonomikoak eta Afrikako herrialdeetako egongaitzasunak immigrazioaren gorakada eragin dute, eta gizarteak uste du EBk aurre egin behar dien arazo nagusietako bat dela.

Euskadira iristen diren pertsona horiek lehendabizi hartzea eta gero gizarteratzea da Eusko Jaurlaritzak Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planarekin ezarritako helburuetako bat, planean enplegua baita ekin beharreko alderdietako bat, prestakuntzari, gatazkei eta esplotazio- eta jazarpen-egoerei dagokienez, kolektibok horiekiko bereziki zaugarriak izaki.

Aipamen berezia merezi du etxeko lanetan eta zaintza-lanetan diharduten emigratzaileen egoerak: emakumeak dira nagusiki, eta sektore horrek jarduteko estrategia orokor bat behar du, laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea barruan hartuko duena.

Bestalde, enpresak nazioartekotzearen eta globalizazioaren ondorioz, EAEko langileen erbesteratze-fenomenoa finkatzen ari da, eta, horrenbestez, gutxi ezagutzen diren inguruneei lotutako laneko prebentzio-baldintza berriak behar dira.



PREBENTZIO-JARDUNAREN KALITATEA

Aurrerapausoren bat izan da laneko arriskuak prebenitzeko kudeaketa-tresnetan, baina tresnon kalitatea oraindik ez da egokia bete nahi dituzten helburuak lortzeko. Oro har, jeneralistak eta eraginkortasun txikikoak dira, prebentzio-neurri eraginkorrak ezartzeko. Aurrerapauso garrantzitsuagoa izan da arrisku psikosozialei heltzean, arrisku horiek ebaluatuta, eta laneko jazarpenari eta indarkeriari aurre egiteko protokoloak abian jarrita.

Prebentzio-adar guztietan, beharrezkoa da genero-ikuspegia sartzea arriskuak ebaluatzeko diseinatzen diren tresnetan, bai eta bestelakoetan ere.

Segurtasun-arriskuak

Arrisku agerikoenak eta larrienak ez ezik, hain larriak izan gabe sarriagotan gertatzen direnak ere ebaluatu behar dira. Honako hauetan aurrera egin behar da: ekipamenduen, sistemen eta teknologien ikerketa eta balioespenak; eta istripuen eta gorabeheren identifikazioan, jakinarazpenean eta ikerketan, datu-iturri garrantzitsuak diren heinean ebaluazioak berrikusteko, hobekuntza-proposamenak egiteko, prebentzio-neurriak ezartzeko, eta, beraz, aplikatu beharreko prebentzioaren kalitatea eta eraginkortasuna handitzeko.

Higiene-arriskuak

Gutxien ezagutzen diren arloetan sakontzen ari da; besteak beste, prozesu eta material berrietan. Hala ere, gai kantzerigenoekiko, mutagenoekiko, disruptore endokrinoekiko eta toxikotasun handiko gaiekiko esposizioa oraindik ere argi ezaugarritu gabe dago, eta, beraz, ez dakigu zehaztasunez zer arrisku-mailaren mende ari diren langileak.

Laneko higienean, multiesposizio-azterketan sakondu behar da, gai fisiko, kimiko eta biologikoekiko esposizioak bezala, emakumeen eta gizonen artean duten eragin diferentziala ere kontuan hartuta.

Arrisku ergonomikoak

Espezializazio-maila handitu bada ere, enpresek eta entitate espezializatuek baliabide gutxiago bideratzen dituzte arrisku horiek ikertzera. Adar honetan premiazkoagoa da arriskuak genero-ikuspegitik ebaluatzea, beste inon baino agerikoagoak direlako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak.

Badirudi esperientziak benchmarking-prozesuekin partekatu behar direla, eta sortutako bitarteko, material eta ikerketa guztiak biltzeko, kontsultatzeko eta baliatzeko euskarriak sortu behar direla.

Arrisku psikosozialak

Gero eta erakunde gehiagok tratatzen dituzte arriskuak, baina, egun, gehiago lan egiten da gatazkari dagokionez, eta ez prebentzioan, eta are larriago dena, ebaluazioa eta tratamendua ez dira hain ezagunak, konplexuagoak izateaz gain.

Ematen du metodologiak egokitu behar direla, edo espezifikoki garatu, ingurune (primario) batzuetarako.

Genero ikuspegitik lan egin behar da, arriskuak neurri handiagoan eragiten dietelako emakumeei, lan egiten duten sektoreen eta genero-arloko baldintzapenen ondorioz. Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioari arrisku psikosozialen esparruan heldu beharko litzaioke.

Osasunaren zaintza

Langilearen osasuna zaintzearen helburuez eta zaintze hori gauzatzeko modurik egokienaz ikasitakoa areagotu egin da urteotan, egindako prestakuntza- eta dibulgazio-lan handiaren ondorioz, bai enpresarien eta langileen artean, bai prebentzio-erakundeetako teknikarien eta sanitarioen artean.

Hala ere, ezer gutxi hobetu dira osasunaren zaintza kolektiboaren ondoriozko jarduerak, Osalaren lanean zaintza epidemiologikorako gidari dagokionez izandako lanketa, dibulgazioa eta prestakuntza



gorabehera. Osasun-jarduera hori azpimarratu behar da, enpresetako osasunaren hobekuntza neurtzeko adierazle ona baita dudarik gabe.

Era berean, begien bistakoa da koordinazioa sustatu behar dela prebentzio-zerbitzuetako arlo teknikoaren eta medikoaren artean, ezinbestekoa baita arazoak hautemateko, eta lan-baldintzak hobetzeko proposamenak egiteko.

Eragile profesionalak

Nabarmendu behar da besteren prebentzio-zerbitzuen merkatuan hiru urteotan izandako birmoldaketa sakona. Izan ere, 35/2014 Legea indarrean jartzeak behartuta, mutualitateek prebentzio-zerbitzuak eta gisako jarduerak bereizi behar izan zituzten Gizarte Segurantzaren entitate laguntzaile moduan egiten zituztenetatik. Bereizte-prozesu hori 2015. urtearen erdialdean gauzatu zen.

Hartara, prebentzio-zerbitzuetan, zeinak orain guztiak entitate pribatuak baitira, eta arau-aldaketei esker, ordena jarri da, eta hori ona izan da areago profesionaliza daitezen. Hala ere, egun, prebentzio-entitate horiek bat egiteko eta elkar xurgatzeko prozesuetan daude, eta zenbait arazo dituzte, hala nola teknikariak “gainezka egotea” eta ondorioz enpresez gutxi arduratzea, edo arriskuen ebaluazioak orokorregiak izatea eta ondorioz zailagoa izatea laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketan sartzea.

Bestalde, enpresek ez dute baliabide propiorik bideratzen prebentzioaren kudeaketara, uste baitute besteren prebentzio-zerbitzu batera kanporatzea baliagarria dela beharrezko prebentzio-kudeaketa “betetzeko”.

Hortaz, lan egin behar da laneko arriskuen prebentzioa sartzeko enpresan, bai eta enpresei estaldura ematen dieten prebentzio-zerbitzuetan ere.

Prestakuntza eta jakintza

Laneko arriskuen prebentzioaz ikasitakoa areagotu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan, profesional gehiago aritzen baitira adar horretan, eta ahalegin handiak egin baitira ideiak, ikerketak, esperientziak, jardunbide onak partekatzeko, eta eragileak gaitzeko, dagozkien eginkizunak egokiro bete ditzaten.

Badirudi garrantzitsua dela jakintza-plataforma eta -sare berriak sortzen hastea, sektoreko errealitateak zein diren jakiteko, eta esperientziak, ekimenak eta sortutako baliabideak partekatzeko.

Ikerketari dagokionez ere ahalegin eta inbertsio handia egiten ari da, sortutako jakintza hori lan-inguruneetan aplikatu dadin lortu nahian.

Beharrezkoa da laneko arriskuen prebentzio-arloko prestakuntzak eta ikerketak genero-ikuspegia izatea.

Langileen parte-hartzea

Enpresa gehienek formalki betetzen dituzte dauzkaten langileen kontsulta eta parte-hartzeari dagokionez dituzten betebeharrak, baina gutxik sustatzen dute sistematikoki langileek parte-hartze zuzena izatea laneko segurtasun eta osasunari buruzko erabakietan. Egia da ezen, pertsonen kontzientziazioari eta prestakuntza handitzeari esker, langileek esku-hartze handiagoa eta mamitsuagoa dutela prebentzio-arloko erabakietan eta jardueretan.

Baina etengabe parte hartzeko eta kontsultatzeko tresnak aktibatu beharko lirateke.

Oraindik ere heldu behar zaion defizit bat dago emakumeek erabakietan parte hartzeari eta prebentzio-ardurak esleitzeari dagokionez, sindikatu-ordezkaritzako organoetan eta zuzendaritza-mailetan presentziarik ez izatearen ondorioz.



3.1.4 ARAUDIA BETETZEA

Hogei urtetik gora igaro dira prebentzio-araudia promulgatu zenetik, eta etengabeko aldaketen ondorioz (teknologia, lan-prozedurak, materialak, lan-harremanak eta abar) sortutako errealitate berrietara egokitu eta eguneratu behar da. Horretarako, adostasun politikoa eta soziala behar da.

Era berean, araudia betetzean egiten diren aurrerapausoen jarraipena genero-ikuspegiarekin gauzatzeko tresnak eta gaitasuna hobetu behar dira.

Lan-esparrua

Prebentzio-araudia betetzeari dagokionez, administrazioak, hasieran hartutako konpromisoari jarraituta, zenbait organotatik egiten du aholkularitza- eta zehapen-lana.

EAEko Lan-ikuskaritza Eusko Jaurlaritzari duela gutxi (2012an) samar transferitutako organo bat izanik, egiaztatu da beharrezkoa dela Laneko Ikuskaritza-zerbitzuak indartzea. Horregatik, Lan eta Justizia Sailak eta Inspektoreordetza 6 plaza sortu ditu. Era berean, epe laburrera sendotze plan bat eskatu da, ikuskaritza-zerbitzu sendoa bermatu ahal izateko, Laneko Segurtasun eta Osasunaren eragin argia izango duena.

Hala ere, laneko segurtasun- eta osasun-arloko araudia nola betetzen den kontrolatzeko lana, zeina kanpainaren bidez egin baita, handia izan da, eta honako jarduketak hauek bildu ditu:

- Herri-lanak eta azpiegitura handiak bisitatzeko kanpainak.
- Eraikitzen ari diren lantokiak bisitatzeko kanpainak, eraikuntzako segurtasun-baldintza materialak kontrolatzeko.
- Lantokietako segurtasun-baldintzen kontrola.
- Lantokietako higie-baldintzen kontrola.
- Amiantoa: esposizioaren ondoriozko arriskuak, amiantoa duten gaiak kentzeko lanak egitean.
- Arrisku psikosozialak.
- Arriskuak mahatsondoak landatzean.
- Itsasontziak bisitatzeko "Segumar" kanpaina.
- Besteren prebentzio-zerbitzuen kontrola.
- Laneko arriskuen prebentzioaren kontrola adingabeen lanean.
- Laneko arriskuen prebentzioa enpresa ertain eta handietan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena:
 - Berdintasun-plan eta -neurrien kontrola.
 - Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena.
 - Langile haurdunen segurtasun-baldintzen kontrola.
 - Familia eta lana uztartzeko eskubideak.
- Kanpaina ostalaritzako enpresetan; zehazki, gelak garbitzeko zerbitzua.

Lan-ikuskaritzaren jarduketak EAEko laneko segurtasun eta osasunean

Iturria: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatzaren urteroko txostenak.

	2014	2015	2016	2017	2018
Jarduketak	8.668	8.563	9.233	8.982	12.442
Errekerimenduak	1.846	2.283	2.400	2.663	4.733
Arau-haustekak	352	348	477	400	387



Zehapenen zenbatekoa, guztira	2.079.831 €	1.486.701 €	2.081.669 €	2.030.013 €	1.932.338 €
--------------------------------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------

Osasun-esparrua

Estrategiaren lehentasunetako bat izan da EAEko prebentzio-zerbitzuen eta auditoretza-entitateen osasun-jarduerak arautu nahi izatea, batez ere Estatuko araudia indarrean jarriz geroztik, bat-egite handiak ekarri baititu prebentzio-zerbitzu moduan espezializatutako entitateen artean.

Aldaketa horiek berekin ekarri dute dekretu autonomiko berri bat garatzea, zirriborro dena estrategia berrikusten ari garen honetan, entitate horien osasun-jarduerak arau ditzan, jardueren kalitatea egokia izatea bermatzeko. Dekretuaren ondorioz, garapen-agindu egokiak aurreikusi dira, espezifikoki arau dezaten jarduera horietako bakoitza.

Hortaz, EAEn osasun-jarduerak egiten dituzten prebentzio-zerbitzuei egindako bisitak, kontsultak eta errekerimenduak emendatu dira garai honetan, askoz beharrezkoagoa delako langileei osasun-jardueren kalitatea egokia dela bermatzea.

Bestalde, lan-ildo bat abiarazi da, Osasun Publikoari buruzko Legea berrikusi asmo duena, EAEn egokitzeko eta, besteak beste, prebentzio-zerbitzuek osasun-jarduerak ez betetzea zehatzeko araudia eguneratzeko.

3.1.5 OSASUNERAKO KALTEAK

LAN-ISTRIPUAK

Istripuak lanaldian


2015-2020ko Strategiaren planteamendurako egindako azterketan, nabarmentzen zen EAEko istripuek beherantz egin dutela etengabe 2001etik, bai istripuen kopuruan, bai intzidentzia-indizean.

Egia bada ere krisi ekonomikoak jarduera ekonomikoa jaitea eragin zuela (eta horrek beherantz bultzatu ohi du laneko ezbehar-tasa), intzidentzia-indizean ondoz ondo gertatutako jaitsierek adierazten zuten enpresetako segurtasun- eta osasun-baldintzen benetako hobekuntza-oinarri sendo bat zegoela.

Eboluzio on horrekin batera, azterketan ikusten zen indizeak ez aurrera ez atzera gelditu zirela 2013an, baina orduan ez zegoen daturik jakiteko datu puntual bat zen, edo beste joera bat. 2018. urtearen amaieran, pentsa daiteke datuek joera-aldaketa bat adierazten zutela.




Ind. Inc. Total




2013tik, erregistratutako laneko istripuen kopuruak gorakada txiki baina etengabea izan du. Gorakada horren zati handi bat, halaber, ordudanik langile kopurua etengabe handitu izanaren ondorio da, eta horrek adierazten du krisi ekonomia pixkaka gainditzen ari dela.

Acc. Totales



Afiliados/as






Parekoak dira istripu kopuruan gertatutako gorakada eta langileen kopuruan izandakoa, eta intzidentzia-indizea egonkortzea izan da horren ondorioa.

Hurrengo grafikoetan ikusten den bezala, 2013an hasi eta gaur egun arte, ez aurrera ez atzera egite orokortu bat izan da intzidentzia-indizearen hobekuntzan, are igoera txikiak ere iradokitzen dituenaz, aztertutako aldagaia edozein izanda ere (istripuak guztira, larritasunaren arabera, sektoreka eta abar), gizonei dagokienez bezala emakumei dagokienez ere.

Istripuen intzidentzia-indizea



Hau da, 2013tik ezbehar-tasak larriki txarrera ez egin arren, behinolako hobekuntza iraunkorra bat-batean geratu da.

Baliteke 2017tik ezbehar-tasaren beste eboluzio bat gertatzen ari izatea, eta hurrengo urteetan berriz ere hobekuntzak berretsi ahal izatea. Oso zaila da kuantifikatzea ezbehar-tasaren bilakaeran eragina duten indarrak:


- Alde batetik, aurreikus daitekeena da suspertze ekonomikoaren lehen urte hauetan enpresa-jarduna areagotzea, baina enpleguan hein bereko eragina izan gabe, eta horrek ezbehar-tasa sustatu ohi duten egoerak ekarriko ditu berekin: lan-erritmo handiagoa, aparteko ordu gehiago egitea eta abar. Geroagoko urteetan, jardueraren handitzea finkatuz gero, langile kopuruak gora egingo luke, eta lan-erritmoek behera, eta, horrenbestez, intzidentzia-indizeak ere jaitsiko liriateke segur aski. Tartean dago, halaber, ezbehar-tasa gorantz bultzatzen duen faktore bat: behin-behinekotasuna. Enpleguaren hazkundera behin-behineko kontratuetan oinarritzen da, eta behin-behinekotasuna izateak istripua izateko arrisku handiagoa dakar berekin (istripua izateko arriskua % 17 handiagoa 2017an).



- Bestalde, ez da baztertzekoa enpresetako prebentzio-jardunean hobekuntzek goia jo izana. 1997an ahalegin arautzaile handia egin eta prebentzio-zerbitzuak finkatuz gerotik, oso garrantzitsua izan da enpresek denbora eta diru aldetik prebentzio-jardueretarako eta lan-baldintzak hobetzeko egindako inbertsioa. Beharbada, erraz konpondu dira lehen urteetako prebentzio-gabeziak, eta orain, hogeitau urte geroago, baliteke azterketa sakona egin eta aldaketak egin behar izatea jarduketetan, hobekuntzak lortzeko.

Azkenik, azpimarratu behar da lanaldian gertatutako istripuaren tipologia nagusia, orain, 2013an bezala, “gehiegizko esfortzuak, trauma psikikoak, erradiazioekiko esposizioak, zaratak, argiak edo presioak” eragindakoa dela, eta hala gertatzen da kasuen % 44an emakumeen artean, eta % 36an, berriz, gizonen artean.


2017



Eta EAEko gehiegizko esfortzuaren ondoriozko istripuen ehunekoa aztertuta, ikusten dugu Estatukoa baino txikiagoa dela, baina argi eta garbi handiagoa emakumeen artean gizonen artean baino.



Gehiegizko esfortzuaren ondoriozko laneko istripuen ehunekoa EAEn, Estatuarekin alderatuta






“In itinere” istripuak

Oraingo strategiaren aldia hasi zenean egindako azterketan, ikusten zen indize honen bilakaera positiboa lanaldiko ezbehar-tasaren eboluzioaren antzekoa zela, hain nabarmena izan gabe ere. Orain, bitarteko ebaluzioaren une honetan, ikus daiteke ezen, era berean, indize hau ere egonkortu dela azken urteetan, eta ez dela hobekuntzarik izan.

Gainera, adierazi behar da in itinere istripuetan indizeak handiagoak direla emakumeen artean, gizonen kasuan trafiko-ezbeharrak in itinere dauzkaten istripuen % 64 direlako berezitasunarekin; emakumeen kasuan, ordea, in itinere izaten dituzten istripuen % 43 baino ez da trafikokoa.

“In itinere” gertatutako istripuen intzidentzia-indizea






Horrelako istripuetan, bestalde, gorabeherak izaten dira, eta ezin baieztatu daitezke jaitsiera joera finkatua denik.

Nolanahi ere, zentzuzko hipotesia izan daiteke pentsatzea indizearen bilakaerak zerikusi handiagoa duela bideko ezbehar-tasa orokorraren bilakaerarekin hertsiki lanekoa den jardueran izandako ezbehar-tasarekin baino.

Hala ere, ez dago daturik hori egia ala gezurra den esateko, EAEko bideko ezbehar-tasak izandako bilakaera laneko ezbehar-tasaren oso antzekoa izan delako urteotan: trafiko-istripuetan nahasitako pertsonen kopurua etengabe eta adierazgarriki jaitsi da 2003ko gehienekotik 2012ra arte, eta kopurua egonkortu egin da ordudanik.

Trafiko-istripuetan nahasitako pertsonak

Iturria: ezbehar-tasei buruzko Ertzaintzaren estatistikak.



GAIXOTASUN PROFESIONALAK


2007an, gaixotasun profesionalen taula berria eta CEPROSS erregistro berria jarri ziren indarrean, eta adierazpenen bat-bateko jaitsiera gertatu zen, eta, ordutik aurrera, gaixotasun profesionalen intzidentziak gora egin zuen 2013ra arte, eta pixkaka aldaketaren aurreko indizeetara iritsi zen, baina 2014tik aurrera gaixotasun profesionalak batez beste % 17 jaitsi dira, azken urtean zertxobait emendatu arren. Estatuko gainerakoarekin alderatuta, EAE sailkapenaren hirugarren tokian dago gaixotasun



profesionalak jakinarazten diren maiztasunaren arabera, baina jakinarazpen-maila desberdina denez erkidego bakoitzeko jarduera-sektoreetan, ez du erkaketa-baliorik.

Gaixotasun profesional berrien intzidentzia-indizea guztira eta sexuaren arabera. EAE, 2010-2017

(Tasa 1.000 langileko)



Ikusten da gaixotasun profesionalen intzidentzia bi aldiz handiagoa dela gizonengan emakumeengan baino, baina generoa oraindik ere desparekotasun-faktorea da gaixotasun profesionalen intzidentzian, 2007tik handiagoa izan delako emakumeengan gizonengan baino baja hartzera behartzen duen gaixotasun profesional bat izateko arriskua.


EAEan, gaixotasun profesionalen jakinarazpenen gehikuntza baja hartzera behartzen ez zuten gaixotasunen artean gertatu zen bezala, azken urteetan ere jakinarazpenen jaitsiera bajaran gabeko gaixotasunen kontura gertatu da, aurreko joera aldatuta. Aldaketa horren arrazoi nagusia zarataren ondoriozko hipoakusien jaitsiera da, baliaezintasunik gabeko lesio iraunkor moduan aitortu eta itxi baitira, eta, beraz, jada ez dira jakinarazten.

Gaixotasunak erasandako organo edo aparatuen arabera bilduta, kasu gehienak patologia muskulu tendinosoak dira, eta atzetik datoz presioaren ondoriozko neuropatiak (KArene epaia eta hur.) eta zarataren ondoriozko hipoakusiak. Jarrera behartuek eta errepikatzen diren mugimenduek eragindako patologia, zeinen barruan baitaude patologia muskulu tendinosoak eta presioaren ondoriozko neuropatiak, kasu berrien % 63 izan dira 2017an, zaratatik urrun, kasuen % 19 baitagokio.



Gaixotasun profesionalen kasu berriak GNS-10 gaixotasun-taldearen arabera. EAE, 2013-2017

(Kasu berrizat jotako gaixotasun profesionalen parte kopurua, birgaixotzeak kenduta)



Sektoreka, industrian gertatzen da bi sexuetan gaixotasun profesionalen kopuru handiena, eta atzetik datoz eraikuntza-sektorea gizonen dagokienez eta zerbitzuen sektorea emakumeen dagokienez. Industria-jardueran, produktu metalikoen fabrikazioan gertatzen dira sarrien gaixotasun profesionalak, makinak eta ekipamenduak alde batera utzita.

EAEko lurraldean, kasuen intzidentzia handiena Gipuzkoakoa da, baina Bizkaiarekin parekatzen ari da, Arabaren gainetik.


Hipoakusia da oraindik ere eta alde handiz gaixotasun profesionalen eragile ohikoena gizonengan, eta presioaren ondoriozko neuropatiak emakumeengan.

Lokomozio-aparatuko patologiak eta hipoakusiak alde batera utzita, ahots-kordetako noduluak (arnas eritasunen taldeak sartuta) dira kasurik ohikoena emakumeen artean; hala ere, ez dago gaixotasun profesionaltzat jotakoaren tumore-patologiarik.



Gaixotasun profesionalen kasu berriak GNS-10 gaixotasun-taldearen eta sexuaren arabera. EAE, 2013-2017

(Muskulu tendinosoak, presioaren ondoriozko neuropatiak eta hipoakusiak kenduta)




Gaixotasun profesionalenez gain, EAEn 2017. urtean lanak eragindako 323 patologia ez-traumatiko laneko istripu moduan onartu ziren. Estatuko Gizarte Segurantzako PANOTRATSS sisteman egindako deklarazioen % 6,8 dira kasu horiek.

LANAREN ONDORIO IZAN DAITEZKEEN GAIKOTASUNAK (GAIKOTASUN PROFESIONALA SUSMATZEKO SISTEMA)


1299/2006 Errege Dekretua indarrean hasi zenez geroztik, Osakidetzako eta Prebentzio-zerbitzuetako medikuek nahitaez eman behar dute, EAEn 2007tik ezarritako sistemaren bitartez, beren ustez lanaren ondorio izan daitezkeen patologien berri. Sistema horretan, guztira, 7.240 kasu jakinarazi ziren 2008 eta 2017 arteko 10 urteko aldian. Hala ere, 2017ko jakinarazpenak aurreko urtekoak baino % 20 gutxiago izan dira, bai Osakidetzan sortutakoak, bai prebentzio-zerbitzuetakoak. Jaitsiera hori batez ere gizonen artean ikusten da; susmoaren jakinarazpen-tasa oso txikia da emakumeen kasuan, eta ez da aldatu aldi osoan zehar.



Gaixotasun profesionalen susmo-jakinazpenen kopurua jatorriaren arabera. EAE, 2008-2017



Gaixotasun profesionalen susmo-jakinazpenen tasa biztanlerian oro har, sexuaren arabera. EAE, 2008-2017



Zarataren ondoriozko hipoakusiak dira urte guztietan jakinarazten diren patologia nagusiak. Maiztasunari dagokionez, ondoren datoz gaixotasun muskulu tendinosoak eta arnas gaixotasunak, tumoreak ahaztu gabe, zeinetatik ia guztiak Osakidetzako osasun-zerbitzuetatik jakinarazi baitziren.

Azkenean gaixotasun profesionaltzat jo ziren susmoen kopuruak beheranzko joera izan zuen hasieratik 2013ra arte (% 60 baieztatu ziren 2008an eta % 40 baino gehixeago 2013an), baina 2013tik gorantz joan da, 2017an ebaluatuen % 51 izan arte. Hipoakusiak dira gaixotasun profesionala direlako aitortze-mailarik handieneko patologiak; gainerakoetan, aitortze hori % 34 eta % 64 artekoa da.



LANGILE AUTONOMOAK

Azkenik, 2019ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri da nahitaezko afiliaziokoa istripu eta gaixotasun profesionaletarako estalduraren nahitaezko ordainketa, langile autonomoen erregimenari eta norberaren konturako itsas langileen erregimenari dagokienez. Horrek berekin dakar afiliatuen kopurua nabarmen handitzea, eta, segur aski, intzidentzia-indizeak nabariki jaitsiko dira 2019 honetan, aurreikustekoa baita jakinarazitako istripuen kopuruak bere horretan jarraituko duela, eta erreferentziako populazioa handituko dela.

Intzidentzia-indizeetan aurreikustekoa den aldaketaz gain, arreta kolektibo honetan jartzeko beharra sortzen da, aldeak sor baitaitezke kolektiboaren ezbehar-tasan, ikertu beharko ditugun gainerako kolektiboekiko.

3.1.6 INFORMAZIO-SISTEMAK

Hobekuntza batzuk gertatu dira informazio-sistemetan (hobekuntzak datuen bilketan, azterketan eta zabalpenean), baina oraindik badaude egin beharreko beste batzuk.

Hartara, ezbehar-tasei eta gaixotasun profesionalei buruzko informazioari dagokienez, Osalanen ematen eta argitaratzen diren datuak egokitu egin dira, informazioa errazago aztertu ahal izateko. Estatistikak (hilekoak eta urtekoak) eta estatistiken ondorio diren txostenak sexuaren arabera berezita aztertzen dira.

Informazio-sistema integratuak abian jartzen hasi da, prebentzio-zerbitzuek laneko osasunari buruzko datuak jakinaraz ditzaten, hau da, arriskuekiko esposizioari buruzko datuak eta osasunerako kalteei buruzkoak (gaixotasun profesionalen susmoak eta lanarekin zerikusia dutenak). Gaixotasun profesionalen susmoei dagokienez, informazio-sistema bat prestatu da, Osakidetzatik ere jakinarazi ahal izan daitezen lehen arretako eta arreta espezializatuko profesionalen bidez, hori egitea egokitzen jotzen dutenean.

Informazio-sistema horiek berekin dakarte laneko arriskuen prebentzioan eta pertsonen osasunean esku hartzen duten entitateen eta erakundeen arteko integrazioa, eta, horrenbestez, prebentzio-zerbitzuek eta Osakidetaz gain, honako hauek ere esku hartzen dute: ikuskaritza medikoek, Osalanek, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek eta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak, zeinarekin lan-ildo bat garatzen ari baita, zirkuitu horretan sartu ahal izateko.

Lan-ildo bat abiatu da, ahaleginak ildo beretik bideratzeko, eta bi erakundeentzat baliozkoak diren osasun-adierazleak lortu ahal izateko.

Kanal telematikoen erabilera sustatu nahi da, nabarmen gehiago erabili arren oraindik badagoelako zer hobetu zerbitzuak digitalizatzeko eta datuak lortzeko, hobe izan dadin prebentzioaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan.

3.1.7 EUROPAKO ESPARRUA

Europar Batasuneko 2014-2020ko laneko osasun- eta segurtasun-arloko esparru estrategikoak bultzada jaso zuen **Europako Batzordeak** 2017ko ekainaren 10ean aurkeztutako **jakinarazpenarekin**, adierazten baitu zein diren hurrengo urteetako funtsezko ekintzak, laneko segurtasun- eta osasun-arloko legeen erkidego-ondarearen ex post ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta, zeina EBko legeak soiltzeko REFIT ekimenaren barruan egin baitzen.

Batzordeak ondorioztatzen du ezen, laneko segurtasunari eta osasunari buruzko legediaren egitura orokorra egokia eta daukan helburuetara egokitu bada ere, xedapen batzuk zaharkituta geratu direla, eta “arrisku berriei aurre egiteko metodo eraginkorrek bilatzeko premia” azpimarratzen du.



Horretarako, funtsezko ekintza batzuk proposatzen ditu hurrengo urteetarako, lehentasunezko hiru jarduera-ildo garatzen dituztenak:

1. Minbizi profesionalen aurka egitea eta produktu kimiko arriskutsuak arautzea, proposamen legegileen bidez, orientazio- eta sentsibilizazio-lan handiagoarekin batera.
2. Enpresei laguntzea, bereziki enpresa txiki eta ertainei, eta mikroenpresei:
 - Laneko osasun- eta segurtasun-arloko legeria-esparrua bete dezaten, etekin handiena aterata arriskuen ebaluazioetatik, eta webean oinarritutako tresnak erabilia.
 - Laneko segurtasun- eta osasun-arloko arrisku gero eta handiagoei aurre egin diezaieten, arrisku psikosozial eta ergonomikoen kudeaketari helduta, eta arriskuak ebaluatuta adina kontuan izanik.
3. Lankidetzan aritzea estatu kideekin eta gizarte-mintzaideekin, zaharkitutako arauak kendu edo eguneratzeko, eta ahaleginak birbideratzeko, babesa hobea eta zabalagoa izan dadin, eta lekuan bertan bete eta aplikatzeko.
 - EBko legedia eguneratzea eta xedapen zaharkituak kentzea, lehentasunezkoztat jotako sei zuzentaraurekin hasita.
 - Estatu kideak bultzatzea laneko osasun eta segurtasunari buruzko legedi nazionala berrikustera.
 - Estatu kideak bultzatzea, laneko osasun- eta segurtasun-politiken estaldura zabala berma dezaten.
 - Norberaren konturako langileak.
 - Etxe pribatuetan etxeko lanak egiten dituzten pertsonak.
 - Betetze hobea eta prebentzio-kultura.
 - Gainbegiratzeko tresnak sortzea.

2014-2020rako erronkak, nolahi ere, guztiz indarrean daude; besteak beste, emakumeek izan ditzaketen arrisku espezifikoei heltzea, “arreta berezia merezi eta neurri espezifikoen premia” baitute.

Europako esparruan garatutako estrategia berriak ere (H2020 Estrategia eta RIS-3 Estrategiak) lagungarriak dira gizartean segurtasuna eta osasuna izan daitezen xede den bitzta osasuntsuaren oinarria.



3.2 ZEHAZTUTAKO KONTZEPTU-ESPARRUAREN ETA IKUSPEGIAREN BALIOA

3.2.1 KONTZEPTU-ESPARRUAREN INDARRALDIAREN BALIOESPENA

2015-2020ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiak oinarri duen kontzeptu-esparrua osatzen duten ia ideia guztiak oraindik ere baliagarriak dira, baina batzuk zenbait ñabardurarekin. Badaudenei beste bat gehitzen zaie, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia sartzeko premiari lotua.

INDAR-IDEIAK
Honako hauek barruan hartzen dituzten prebentzioaren kudeaketarako moduak: alde batetik, erakundea, jarduera profesionala eta eskumenak zer-nolakoak diren badakizkiten enpresaren barne-baliabideak, eta, bestetik, kanpoko espezialisten laguntza.
Laneko arriskuen prebentzioa, lehiakortasun-faktorea izateaz gain lan ondo eginaren adierazle eta enpresa bikainaren ezaugarria baita.
Prebentzioa, enpresariak eta langileek partekatutako interesgune moduan, non eragile bakoitzak arduraz bete behar baitu dagokion eginkizuna.
Laneko arriskuen prebentzioa arautzen duen legedia berrikustea, indarrean 20 urte egon ondoren, lan-errealitate eta -egoera berriak kontuan hartuta, eta genero-ikuspegia txertatuta.
Lana osasun-iturritzat hartu behar da.
Pertsonen lana egokitzea, dauzkaten ezaugarri morfologikoak eta funtzionalak kontuan hartuta.
Laneko osasunerako aukera izatea biztanleria aktibo osoak, bai eta gaur egun estaldura hori ez duten kolektiboek ere.
☒ Laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia aintzat hartuta, profesionaltasunaren berme moduan. Prebentzio-jarduna ezin da eraginkorra izan, homogeenoki gauzatzen bada, eredu maskulinoa oinarri hartuta, aldeak eragin ditzakeelako, edo egungoak handitu. Laneko arriskuen prebentzioak aintzat hartu behar du genero-ikuspegia, benetan eraginkorra izan dadin pertsona guztientzat.

3.2.2 IKUSPEGIAREN INDARRALDIAREN BALIOESPENA

2020an, EAEn, ebaluatzen ari den strategiari dagokionez, laneko osasun eta segurtasunean lortu beharko litzatekeen ikuspegiak lau ezaugarri ditu, oraindik ere guztiak baliagarriak direnak. Bakoitza aztertuta, lortu nahi den egoerarentz aurrera egiten ari dela ikusten da, baina oraindik bide luzea dago lortu arte.

2015ean zehaztutako ikuspegiari dagokionez, ñabardura batzuk daude, eta interesgarritzat jotzen da horiek gehitzea, azpimarratuta ikuspegia eragileek, erakundeek eta gizarteak partekatu behar dutela.



IKUSPEGIA

Laneko arriskuen prebentzioa, euskal gizartearen kultura-bereizgarria den aldetik: Herritarrek barneratuta dute laneko arriskuen prebentzioa.

Laneko arriskuen prebentzioa enpresen bikaintasun-ezaugarria da, enpresa-sare jasangarri, moderno eta lehiakor baten sendotze-prozesuaren barruan: Enpresa osasuntsu eta lehiakorren eredua, parte-hartzea oinarri duena, eta laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia enpresa etengabe hobetzeko prozesuan sartuta dagoela.

Administrazioak garrantzitsutzat jotzen ditu laneko segurtasuna eta osasuna: Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa, jakintza eta aitzindaritza.

Laneko arriskuen prebentzio-arloko erronka berriei aurre egiteko gaitasuna: Laneko arriskuen prebentzioa, pertsonak ardatz dituen, modu espezifikoan heltzen diona generoaren eraginari, eta kontuan hartzen dituen errealitate eta egoera berriak, zeinen eragileak hauek baitira: aldaketa soziala eta eskatzen duena; lege- eta arau-aldaketak; teknologia berrien presentzia eta agerpena; lan egiteko prozesuak eta moduak; eta gailentzen ari diren arrisku batzuen agerpena.



3.3 LAN-ILDOAETAN GAUZATUTAKO JARDUKETAK

3.3.1 1. ARDATZA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA

I.1.1 Estrategiak eta tresnak garatzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko **komunikazioa hobetzeko eta gai horri buruzko kontzientzia zabaltzeko**, enpresaburuentzat eta langileentzat eta batez ere ETEentzat.

Dibulgazio-ekitaldi ugari egin dira, prebentzio-kontuen eta egungo tresnen (giden, protokoloen, metodologiaren...) berri emateko, zenbait jarduera-sektore eta -adarretako enpresentzat, baliabide digitalen bidezko komunikazioa sustatuta.

Berariaz landu dira lehen sektorea, laneko bide-segurtasuna, adikzioen prebentzioa, genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzian barneratzeko prozesuak, arrisku psikosozialak, jokabide seguru eta osasungarrien sustatzeko bideak.

Dibulgazio-ekintzak langile autonomoentzat, besteak beste ostalaritzan, txikizkako merkataritzan eta errepideko salgai-garraioan, eta sentsibilizazio-kanpaina bereziak ETE eta mikroETEentzat.

I.1.2 Bultzatzea gehiago jakitera zer **ondorio dituen laneko arriskuen prebentzioak** enpresaren **lehiakortasunean**, eta prebentzioa kalitate-faktoretzat har dezaten sustatzea.

Prebentzioaren kudeaketa-arloko bikaintasunaren aitortze instituzional eta soziala bultzatu da, eta ikusgaitasuna eman zaie antolatutako foro eta ekitaldietan laneko arriskuen prebentzian erreferentzia diren enpresen jardunbide onei, material informatiboa sortzeaz gain.

I.1.3 Laneko arriskuen prebentzio-kultura sustatzea, eta horretaz gehiago ikastera bultzatzea **Hezkuntza**-maila guztietan.

Aurrerapauso handia egin da eduki eta material praktikoen prestaketan, bai eta, LHko eta unibertsitateetako ikasleen artean, laneko arriskuei buruzko kontzeptuen hedapenean ere: Osalaren zentroetara egindako bisitak; ADI programa; hitzaldiak ikastetxe teknikoetan; laneko arriskuei buruzko prebentzio-kontzeptuak unibertsitate-masterretan; programa pilotuak; EHUko uda-ikastaroak; eta jarduera espezifikoak nabigazio- eta arrantza-eskoletan eta nekazaritza-eskoletan, zeinetan 3.500 ikaslek baino gehiagok parte hartu baitute.

I.1.4 Teknologia berrien ondoriozko komunikabideen erabilera aztertzea eta sustatzea, besteak beste **Internetena, sare sozialena, sakelako telefonoena eta abarrena**, kolektibo espezifikoetara iristeko.

Nabarmen handitu da laneko arriskuei buruzko prebentzio-mezuen presentzia webetan eta sare sozialetan, bai eta herritarrekiko interakzioa ere, kontsulta eta salaketetarako web-postontzien eta sare sozialen bidez.

Azpimarragarria da, halaber, webgune espezifikoak sortu izana kolektibo jakinentzat (Gaztepreben, adibidez) nahiz prebentzio-kontu berezi batzuei buruz aritzeko (generoa, Psikopreben...).

I.1.5 **Komunikabideek** laneko segurtasun eta osasunaren sustapenean parte-hartze handiagoa izan dezaten bultzatzea.

Komunikabideetan presentzia handiagoa dute laneko segurtasun eta osasunari buruzko edukiek, adituei egindako elkarrizketek eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko eztabaidek, zeinetan lantzen baitira, besteak beste, amiantoarekiko esposizioa, genero-ikuspegia prebentzioaren kudeaketan sartzea, lehen sektoreko arriskuak, zahartzearen kudeaketa prebentiboa eta abar.

I.1.6 **Gizarte-eragileen arteko elkarrizketa eta lankidetz**a sustatzea, laneko segurtasunaren eta



osasunaren arloan helburu bateratuak itundu eta lortzeko.

Nahi izan duten gizarte-eragileen parte-hartze handia estrategiaren garapen eta jarraipenean, OSALANeko Kontseilu Nagusiaren eta dauzkan batzordeen bidez.

Elkarrizketa horren emaitza izan da Elkarrizketa Sozialaren Mahaia erakundetzea Euskal Autonomia Erkidegoan urtarrilaren 15eko 3/2019 Dekretuaren bidez.

I.1.7 Inplikazio eta profesionaltasunez parte hartzera bultzatzea **enpresetan prebentzio-jardueraz arduratzen direnak**; besteak beste: prebentzio-ordezkarriak, laneko segurtasun- eta osasun-batzordeak, erdi-mailako arduradunak eta prebentzio-erakundeetako teknikariak eta sanitarioak.

Honako hauek sentibilizatzeko eta prestatzeko lan handia egin da: prebentzio-ordezkarriak, sanitarioak, laneko medikuntzako MIR-R4 direlakoak, segurtasun- eta osasun-batzordeetako eta enpresa-batzordeetako kideak; eta, horretarako, dibulgazio-ikastaroak eta -ekitaldiak baliatu dira, eta aholkuak eman zaizkie, eginkizunak hobeto bete ditzaten.

L.1.8 Laneko segurtasun eta osasunean inplikaturako eragileen arteko harremanak errazteko **Administrazio publikoak** duen zeregina sustatzea eta eragile horiekiko lankidetzaren sendotzea.

OSALANeko Kontseilu Nagusiak Administrazioaren eta gizarte-eragileen arteko lankidetzarako hiru alderdiko organo moduan betetzen duen rola indartzea.

OSALAN eta Lan-ikuskaritza indartzea baliabide gehiagorekin.

Administrazioaren eta laneko arrisku-eragileen arteko lantaldeak, foroak eta batzordeak sustatzea.

3.3.2 2. ARDATZA. LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTZEA ETA HEDATZEA

I.2.1 Osasunerako kalteei buruzko **informazioa** eta prebentzio-jardunen eraginkortasunari buruzkoa sustatzea, kaltearekin zerikusia duten funtsezko esparruei helduta:

- Lan-istripuak.
- Jatorria lanean duten patologiak.
- Arriskuekiko esposizioa.
- Ezaugarri bereziak dituzten kolektiboen problematika.

Ia 1.000 lan-istripuren eta 700etik gora gaixotasun profesionalen ikerketa.

Azterlan espezifikoak laneko bideko ezbehar-tasaz eta faktore psikosozialen ondoriozko istripuez.

Abian jartzea laneko minbiziari buruzko proiektua, hasiera batean hiru minbizi mota xede dituen, ebidentzia zientifiko handia baitago hiru mota horiei buruz, esposizioaren eta efektuaren arteko erlazioari dagokionez.

Laneko minbiziaren ikertzeko estrategia.

Genero-ikuspegia datuen azterketan sartzeko.

Adierazleak eraikitzea.

Laneko historia klinikoak kontuan hartu beharreko item komunak garatzea, datu homogeneoak erabiltzeko prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuetan.

Abian jartzea laneko osasun-datuei buruzko informazio-sistema, Gutxieneko Datu Maltza izenekoa, baliagarria baita arriskuekiko esposizioari eta osasunerako kalteei buruzko datuak lortzeko, eta,



horrenbestez, joerak ikusteko, planak diseinatzeko eta duten eraginkortasuna ebaluatzeko.

Gaixotasun profesionalen susmoak jakinarazteko sistema sustatu da, prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuetatik eta osasun-sistema publikotik hauteman daitezkeen guztiak ezagutzeko.

I.2.2 Enpresetako arriskuak kudeatzeko ardura duten eragileen **prestakuntza** sustatzea:

- Prebentzio-ordezkariek
- Laneko segurtasun- eta osasun-batzordeak
- Prebentzio-arloko erakundeetako teknikariak eta sanitarioak
- ETEetako enpresariak

5.000 prebentzio-ordezkarik baino gehiago prestatzea.

Sanitarioentzako prestakuntza, aurrez aurreko 62 ikastaro eginda 2.624 parte-hartzaileekin.

Online prestakuntza prebentzio-bitartekoaz.

Tresnak egitea, prebentzioa hobeto kudeatzeko, lanak segurtasunez egiteko eta web bidez zabaltzeko.

Masterra EHU laneko arriskuaren prebentzioaz.

Litezkeen gaixotasun profesionalak eta laneko minbiziak detektatzeko prestakuntza-kanpaina sare publikoko ospitaleetan.

Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko prestakuntza espezifikoak, gizonen eta emakumeen berdintasunerako entitate laguntzaileentzat eta aholkularitza-zentro homologatuentzat, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde publikoen sareko enpresa publikoentzat ere.

Eskaera garrantzitsua laneko arriskuaren prebentzio-arloan, lehen sektorearentzat eta HAZIren bidez garatua OSALANen laguntzarekin.

I.2.3 Ikerketa sustatzea, enpresetan **aplikatzeko moduko jakintza** sortzeko.

Azterketak arriskuez, jardueraz, kolektiboez, prebentzio-tresnen garapena eta ekitaldien zabalkundea, ia 1.400 enpresaren parte-hartzaileekin, eta baliabide digitalen bidez.

Diruz lagunduta laneko arriskuaren prebentzioan interesekoak diren alderdi batzuk ikertzeko 14 proiektu.

Lehen sektoreko esparruetan jakintza sortzea eta transferitzea ahalbidetu duten ikerketa-proiektu eta -jarduerak batzuen garapena. Lehen sektorean laneko arriskuak prebenitzeko ITSASPREBEN, NEKAPREBEN eta ELIKAPREBEN planetan abiarazitako ekimenekin jarraituta, egoeraren diagnostikoa egin da, bai eta garapen estrategikoa ere, eta, horri esker, "2025eko Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Katean Laneko Arriskuak Prebenitzeko Estrategia Sektoriala (EuskadiPreben2025)" abian jarri da.

I.2.4 Teknologia-arlo berritzaileetan **prozesu eta produktu berriak** garatzeari lotutako arriskuei buruzko ikerketa sustatzea.

Dirulaguntzak eman zaizkie laneko arriskuaren prebentzioa ikertzeko proiektuei, nanopartikulekiko esposizioaren arriskuak iker ditzaten.

I+G+B sustatu dira, lan-prozesu seguruak lortzeko arrantzan eta gisako sektore tradizionaletan, eta 52 itsasontzitan aztertu da zer neurritan dagoen sartuta segurtasuna arrantza-ekipamenduetan eta -teknologian, eta sei berrikuntza eta garapen teknologikoak sustatu dira zenbait arrantza-prozesutan, arrisku nagusiak desagerrarazi eta/edo murrizteko.

ALERTA 2017 proiektua: Itsas arrantzako instalazioetako mantentze-lan eta jarduerak kritikoetarako



denbora errealeko kontrol-, alerta- eta esleipen-sistema adimenduna.

MYCECSS 2017 proiektua: Segurtasun eta osasunerako ingurune kritikoen monitorizazio- eta kontrol-sistema portu-eremuetarako.

KUPELA 2015 proiektua: Artisau-gaztandegietan mamia ebaki eta kupeletatik ateratzeko prozesuaren hobekuntza ergonomikoa. Egun, erabilgarritasun-eredutzat hartuta dago, eta, Artzai Gazta (107 bazkide) elkartearekin batera, sustatzen ari da, eta prozesuen barruan sartzen.

1.2.5 Ikerketa sustatzea **lana antolatzeke moduen** eta laneko harremanen esparruan izandako aldaketan (bereziki azpikontratazioaren) ondoriozko arriskuei buruz.

Arrisku psikosozialari buruzko ikerketa espezifikoa egin dira osasun-, garraio- eta arrantza-jardueretan lan egiten duten kolektibo jakin batzuetan.

Txandakotasuna ere aztertu da, eta azaldu zer eragin duen arrisku psikosozialetan.

1.2.6 Arrisku berriei eta batere ohikoak ez diren patologiak agertzeari buruzko ikerketa sustatzea, **langileek** mundu globalizatuan duten **mugikortasun** handiaren eta, zehazki, EAEko enpresak erbesteratzearen ondorio baitira.

Jarduerak oraindik ez dira gauzatu arlo honetan, baina estrategiaren azken zatian helduko zaio.

3.3.3 3. ARDATZA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEATZEA

1.3.1 Laneko arriskuak prebenitzeko plana kudeatzeko eta aplikatzeko **funtssezko tresnen** hobekuntza sustatzea:

- arriskuaren ebaluazioa, metodologiari eta entitate espezializatuari dagokienez jardunda,
- prebentzio-jardueraren plangintza, kudeatzeko tresna eraginkor moduan, eta
- langileen osasunaren zaintze espezifikoa.

Aholkularitza- eta gainbegiratzeko-kanpainak enpresa eta entitate espezializatuentzat, prebentzio-kudeaketarako tresnen kalitatea azpimarratuta; besteak beste; arriskuaren ebaluazioa; eraikuntzako segurtasun- eta osasun-planena; prebentzio-jardueraren plangintzaren eraginkortasuna; bai eta osasuna zaintzeko tresnena ere.

Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokolo espezifikoa bat egitea eta zabaltzea enpresetan, eta prestatzea, protokoloa egokiro ezartzen laguntzeko.

Osasun kolektiboaren zaintza ezartzeko gida bat egin eta zabaltzea prebentzio-zerbitzuetarako, bai eta gida aplikatzeko prestatzea ere.

Osasun-zaintza espezifikorako protokoloak eguneratzea, ebidentzian oinarritutako medikuntza-metodologiara egokituta, eta osasun kolektiboa zaintzeko neurriak barruan hartuta: zaratarekiko esposizio-arriskua eta egurraren hautsarekiko esposizio-arriskua.

Erregistro eta sistema informatikoak garatzea, EAEko prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduketak hobetzen laguntzeko.

Amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren langileen lan egin osteko osasuna zaintzeko programaren etengabeko eguneraketa.

1.3.2 Honako hauek direla-eta dauden arriskuak prebenitzea, kontrolatzea eta desagerraraztea **lan-baldintzak hobetuz**:

- laneko ekipoak
- gai kimiko eta biologikoak



- lanpostuen, lanabesen eta lan-prozesuen diseinu ergonomiko txarra
- antolamendu-baldintza desegokiak
- arrisku psikosozialeko faktoreak.

Aholkularitza langileen ordezkariarentzat, enpresa eta entitate espezializatuarentzat lan-baldintzak hobetzeari buruz, eta 8.000 lantoki baino gehiago bisitatzea, arriskuei aurrea hartzeko eta aurre egiteko kanpainen.

Lan-ekipoak modernizatzea 741 enpresarentzako finantzaketa-programen bidez, makinak ordezteko; 2015 eta 2017 artean zenbatekoa, guztira, 29.452.309,44 eurokoa izan da.

1.600 lan-plan baino gehiagoren kontrola, amiantoaren duten materialak kentzeko.

I.3.3 Laneko arriskuen prebentzioa ETEen eta mikroETEen kudeaketan sar dadin sustatzea, ahalik eta prebentzio-efikaziarik handiena litekeen kosturik txikienarekin lortzeko irizpidearekin. Enpresek, beren bitartekoekin, prebentzio-jarduerak beren gain har ditzaten sustatzea.

Prebentzio-zerbitzu mankomunatuaren ezarpena sustatzea, besteak beste nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan.

Kanpainak eta jardunaldiak, enpresa txiki eta ertainetan laneko arriskuen prebentzioa baliabide propioekin kudeatzea sustatzeko.

I.3.4 Istripuen eta gaixotasunen prebentzioa sustatzea ezbehar-tasa handiko eta/edo arrisku-maila handiko jardueretan eta enpresetan.

Ahalegin handia bideko lan-istripuak prebenitzeko, zenbait jarduketaren bidez; adibidez, ezbeharrik ikertzea, metodologia espezifikoaren erabiliz, eta bide-segurtasunerako gida praktikoa egitea, SEGURBIDE proiektuaren barruan, bideko segurtasuna berriro eta hobetzeko enpresa txiki eta ertainetan.

Kanpainak istripu-indize handiko sektoreetan, arreta arrisku larrietan jarrita, hau da, besteak beste, eraikuntzan toki garaietatik erortzeko arriskuan eta industria-arloko gai kimikoekiko esposizio-arriskuetan (silizea, formaldehidoa eta abar).

I.3.5 Lehen Sektoreko enpresen arazo partikularretan eragina izatea, laneko arriskuak prebenitzeko bana-banako orientabide, laguntza eta konponbideen bidez, kasuan kasuko ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Sentsibilizazio- eta aholkularitza-kanpainak lehen sektoreko zenbait jardueratarako, sektoreko elkarteak, erakundeak eta eragileak kontuan hartuta: sasoikako lana; basogintza- eta lorezaintza-jarduerak; baxurako arrantza; uzta-biltzaileak; abeltzaintza; produktu fitosanitarioen erabilera segurua...

Prebentzio-egituren sustapena eta material eta tresnen garapena, lehen sektorean prebentzio-kudeaketa hobetzeko.

Arriskuen mapak eta arriskuen eredu-ebaluazioak prestatzea, arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko metodologia hobetuta, eta prebentzio-sektore eta -adar bakoitzera egokituta.

I.3.6 Populazio landuna gero eta aniztunagoa dela kontuan hartuta, haien beharrei heltzea, arreta berezia jarrita lan-baldintzei dagokienez dauzkaten premia berezietan, eta laneko arriskuen prebentzioa honako hauen kasuetan:

- adin handiko langileak
- esperientziarik gabeko gazteak
- emakumeak
- langile migratzaileak
- dibertsitate funtzionala edo gaixotasun iraunkorrak dituzten pertsonak.



Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan sartzera bultzatzea: jarraibideak, irizpideak eta tresnak egitea, eta dibulgazio-ekitaldietan eta web bidez zabaltzea. Arreta jartzea oso feminizatuta dauden lanetan, etxeko lanetan adibidez, bai eta emakumeek dauzkaten arrisku espezifikoetan ere, besteak beste, sexu-jazarpenean eta sexuan oinarritutako jazarpenean.

Zahartze-prozesuan arriskuak prebenitzeari buruzko ikerketak, eta sentsibilizatzea lana pertsonen gaitasunetara egokitzeko beharraz. Ikerketa-ildoak jakiteko zer eragin duten egungo lan-inguruneek lehen sektoreko zenbait adinetako langileengan.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen prebentziorako tresnak.

Aurrerapausoak Administrazioan, lanpostuak egokitzeari dagokionez, osasun-arazoak arintzeko, genero-ikuspegia txertatzeko, kolektibo espezifikoetara heltzeko.

3.3.4 4. ARDATZA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

I.4.1 Laneko arriskuen prebentzioa Administrazio Publikoen kudeaketan sar dadin sustatzea.

EAEko Administrazio Orokorreko prebentzio-zerbitzuak indartzea, eta aurrerapausoak prebentzio-planaren ezarpenean.

EAEko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana egitea, genero-ikuspegia duen laneko osasun-arloa kontuan hartuta.

Irakasleak eta kolektibo espezifikoak prestatzea.

I.4.2 Politika publikoek –zeharkakoek eta sektorialekin– laneko segurtasun eta osasunaren alderdiak kontuan har ditzaten bultzatzea.

Lankidetzat handia organoen, administrazioen eta erakundeen artean, laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko kasuan kasuko jarduera-esparruetan garatutako plan estrategikoen barruan; besteak beste:

- Prebentzio-zerbitzuen osasun-antolaketa
- Laneko segurtasuna eta osasuna sartzeko 2018-2023ko Euskadiko Onkologia Planean
- Laneko segurtasuna eta osasuna sartzeko 2013-2020ko Euskadiko Osasun Planean
- 2025eko Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Katean Laneko Arriskuak Prebenitzeko Estrategia Sektoriala, beste plan eta tresna sektorial batzuk segurtasunaren eta osasunaren arloko aldagaiekin osatzen, indartzen eta bideratzen baititu.

I.4.3 Araudia aplikatzeko eta betetzen dela kontrolatzeko aholkularitzako eta laguntza teknikoko eginkizunak betetzea.

Arreta kontsultetan, aholkularitzan eta laguntza teknikoan, enpresei (bereziki enpresa txiki eta ertainei), langileei eta dituzten ordezkarietara, elkarteetara, elkargo profesionalari eta, oro har, herritarrei dagokienez, laneko arriskuen prebentziora eta segurtasun industrialari buruzko araudia betetzeari lotutako alderdien gainekoak direnean.

Laneko arriskuen prebentziora buruzko araudia betetzen dela kontrolatzea, kanpainen eta ofiziozko jardunen bidez, salaketak kontuan hartuz...; 2015 eta 2018 artean, guztira, 39.220 jarduketa izan dira. Eskumenak garatzea arlo hauetan: osasun-baimena eta prebentzio-zerbitzuen kontrola.

I.4.4. Laneko arriskuen prebentziora buruzko **araudia berrikusi eta** gizarte-, ekonomia- eta lan-arloko



errealitate berrietara **egokitu** dadin bultzatzea, gaur egun baztertuta dauden edo behar bezala artatuta ez dauden kolektiboek lan-osasunerako sarbidea izan dezaten sustatuta.

Aurrerapausoak zerbitzu telematikoen ezarpenean

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren aplikazioa sustatzeko proiektuak garatzea, batez ere enpresa txiki eta ertainetan

Lan-arloko zehapen-araudia berrikustea

Laneko historia klinikoaren ezarpenari buruzko araudiaren garapena

Osasun Publikoari buruzko Legea berrikustea, Euskal Autonomia Erkidegora egokitzeko, eta, besteak beste, osasun-jarduerak ez betetzearen ondoriozko zehapen-araudia eguneratzea.

Garapen-aginduak egitea osasun-jarduera zehatzak arautzeko; adibidez, laneko historia klinikoa eta gutxieneko datu-multzoa.

1.4.5. Administrazioen eta erakunde publikoen arteko **koordinazioa eta lankidetz**a sustatzea, helburu erkideak identifikatuta, eta baterako jarduketak garatzeko itunak eginda.

Lantaldeak eta hitzarmenak egitea hogeita bat administrazio eta erakunde publikoren artean, baterako proiektuak garatzeko; besteak beste:

- Herri-lanen eta azpiegitura handien jarraipena egiteko lurralde-batzordeak.
- CANO proiektua, Kantauriko itsasertzeko autonomia-erkidegoetako laneko segurtasun- eta osasun-institutuen artean lankidetzan aritzekoa.
- Amiantoari buruzko hitzarmenaren ondoriozko batzordea eta komite teknikoa.
- Lantaldea amiantoa identifikatu eta segurtasunez kentzeko.
- Laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia aintzat hartuta.
- Basogintza-sektoreko ezbehar-tasa txikitzea.
- Adikzioen prebentzio-plana.
- Euskadiko laneko minbiziari buruzko proiektua.
- Agerraldi eta alerta epidemiologikoei buruzko ikerketak.

Makinei buruzko 2006/42/EE zuzentaraua betetzea.

- Osasun Sistema Nazionalako Lurraldearteko Kontseiluko Osasun Publikorako Batzordearen laneko osasunari buruzko txostena.
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalako lantaldeak.
- Zenbait normalizazio-batzorde tekniko, UNE-CTN.
- Lan-ekipoak modernizatzeko RENOVE Plana.

1.4.6. Erakunde eta administrazio eskudunen arteko lankidetza sustatzea, lan-istripuak, laneko gaixotasunak edo gaixotasun kronikoak direla medio gaitasunak gutxituta dituzten pertsonak **berri**z laneratu, gaitu eta trebatzeko.

GSINekin elkarlanean aritzea, ezintasunak baloratzeko espedienteetan.

Lanerako ezintasun iragankor luzeen ondoren berriz lanean hasten laguntzeko jarduerak.

Erasoen ondoriozko gatazken jarraipen psikologikoa.



3.4 HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA OPERATIBOEN BETETZEA

Aurreko atalean deskribatutako jarduketek estrategian zehaztutako helburuak betetzen lagundu dute, dudarik gabe.

Zehaztutako helburu estrategikoez oraindik pentsatzen da guztiz indarrean daudela, eta, lortzeko bidean aurrera egin bada ere, aurrerapausoak neurgaitzak dira, balorazio kualitatiboa alde batera utzita, jarraipen-sistema egituraturik ez dagoelako.

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HAUTEMANDAKO AURRERATZE-MAILA ETA HORREN BALIOESPENA
1.H.E. LANAK EZ DIO KALTERIK EGITEN OSASUNARI	<p>Ezin da betetzat hartu helburua, oraindik lan-istripuak eta arriskuekiko lan-esposizioaren ondoriozko gaixotasunak gertatzen direlako.</p> <p>Nolanahi ere, epe luzeko helburua da, ezbehar-tasak eta gaixotasun profesionalen indizeak pixkaka murriztuz lortu behar dena, eta ahalegin horretan lan egiten jarraitu behar da estrategiarekin zerikusia duten erakundeen artean.</p> <p>Dudarik gabe, enpresetan eta lantokietan gehiago dakite laneko segurtasunaz eta osasunaz, prebentzioan diharduten eragileentzako aholkularitza-, dibulgazio-, prestakuntza- eta ikerketa-jardueren ondorioz.</p> <p>Hala ere, gehiago jakite horrek ez du berekin oraindik ekarri argi eta garbi hobetzea prebentzioaren kudeaketa eta arriskuen trataera, batez ere sektore feminizatuetan eta gutxi egituratutako jardueretan.</p>
2.H.E. LANEKO OHITURA SEGURUA ETA OSASUNGARRIA	<p>Sentsibilitate eta kontzientzia handiagoa dago lantokietan laneko arriskuen prebentzioari buruz, baina hori askoz argiagoa da enpresa handietan txikietan baino, eta hobeto egituratuta dauden sektoreen berezko jardura batzuetan.</p> <p>Laneko arriskuek gehiago kezkatzen dute gizartea, zorrotzagoa da arrisku horien prebentzioari dagokionez, eta indarra hartzen ari da genero-ikuspegia prebentzio-kudeaketan sartzeko eta arreta emakumeek dituzten arriskueta jartzeko aldarrikapena.</p> <p>Kontzientzia sozial hori sortzeko hezkuntzan lan egitea oraindik ere lehentasuna da etorkizunera begira.</p>
3.H.E. ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA	<p>Herritarren sentsibilitate handiagoak, bereziki enpresarienak eta langileenak, gizarte-eragileak eta Administrazioa gehiago inplikatzera, hitz egitera eta akordioak erabakitzera bultzatzen ditu.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoan Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzeko Dekretua eta elkarrizketa soziala berrabiarazteak helburu du gizarte-eragileen konpromiso-akordioa. Alderdi biko elkarrizketa Euskadin ere hobetu beharra dado, horri esker jarriko baitira laneko segurtasuna eta osasuna negoziazio kolektiboaren erdigunean.</p> <p>Enpresetan prebentzioaren ardura duten eragileei dagokienez, besteren prebentzio-zerbitzuen merkatuaren birmoldaketak aldi hau ezaugarritu du, eta zaildu beren jarduketan kalitatea sustatzeko ekintzen garapena.</p>
4.H.E. LANGILEEN LAN-	<p>Prebentzioa enpresen eta administrazioen kudeaketan sartzeak aurrera egin du, baina oraindik ere beharrak hautematen dira.</p>



HELBURU ESTRATEGIKOAK	HAUTEMANDAKO AURRERATZE-MAILA ETA HORREN BALIOESPENA
BALDINTZAK ETA BIZI-KALITATEA ETENGABE HOBETZEA	<p>Lehen sektorean egindako aurrerapausoak nabarmentzen dira, bertan akordio bat gauzatu baita eragileen artean, elikagaien eta egurraren balio-kateko prebentzioa garatzeko.</p> <p>Arreta jarri beharko genuke prebentzio-kudeaketa hobetzeko egituraketa txikiena duten eta prekaritate handieneko enplegua duten sektoreetan (besteak beste, ostalaritzan, merkataritzan, zainketen sektorean eta etxeko lanetan); izan ere, emakumezko langileen presentzia handia da jarduera horietan; arreta jarri beharko genuke, halaber, enpresa txikietan eta hain agerikoak ez diren arriskuen trataeran (higienea, ergonomia eta arrisku psikosozialak).</p>
5.H.E. ADMINISTRAZIO PUBLIKO AITZINDARI LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAN	<p>Administrazioak laneko arriskuen prebentzioaren garapenean izandako aitzindaritza gehiago nabaritu da enpresei eta kanpo-erakundeei dagokienez bete duen eragite- eta bultzatze-eginkizunean, dauzkan langile propio eta azpikontratatuak dagokienez bete duen enplegatzaile-eginkizunean baino.</p> <p>Garrantzitsuak dira administrazio eta erakunde publikoen arteko koordinazio-arloan egindako aurrerapausoak, eta agerikoak Administrazioaren aholkularitza- eta ikuskaritza-eginkizunak betetzean lortutakoak, eta Administrazioari oraindik ahalegin handiagoa eskatzen zaio, laneko segurtasun eta osasunerako baliabide gehiago erabilita.</p>
6.H.E. GORABIDEAN DAUDEN LANEKO ARRISKUAK KUDEATZEA ETA ZEIN DIREN JAKITEA	<p>Zer ikasi sortu bada ere laneko arriskuen prebentzio-arloan kolektibo interesdun guztiak jomuga izanik, garatutako lan-ildoan ikuspuntua ez da batere berritzailea izan, eta betiko prebentzioan nahiko errotuta egon da.</p> <p>Herabeki hasi da proiektuak eta jarduketak zirriborrotzen, gizarte-aldaketen eta teknologia eta lan egiteko molde berrien ondorioz sortutako etorkizuneko erronkei heltzeko laneko segurtasun- eta osasun-arloan.</p> <p>Helburu hori lortzeko bidea luzea da, eta erne egotera nahiz etorkizunerantz begiratzea behartzen du.</p>
7.H.E. LANA PERTSONEN EZAUGARRI ETA GAITASUN ALDAKORRETA A EGOKITZEA	<p>Aipatu behar da sustraitzen ari dela arriskuen prebentzioak ardatz pertsonak izan behar dituelako mezua.</p> <p>Hala ere, berrikuspenak argi utzi du helburua hedatzeko erabilitako ikuspegia ez dela egokia, eta, alde horretatik, helburu operatiboak aldatzea proposatzen da. Hartara, ezin hitz egin daiteke emakumez kolektibo moduan; aitzitik, genero-ikuspegia gehitu behar da langileek esparru guztietan laneko segurtasun- eta osasun-arloan dituzten beharrei heltzean.</p> <p>Istripuen eta gaixotasunen ondorioz gaitasunak murriztuta dauzkaten pertsonentzako arretari dagokionez, ez da aurrerapen handirik sumatzen, eta ezin utzizko helburua da, ahaleginak berrituta landu beharko dena.</p>



Jomuga estrategikoak gauzatzeko helburu operatiboak dagokienez, baten bat berrikusi behar da, zehaztu eta planteamenduan genero-ikuspegia gehitzeko.

HELBURU OPERATIBOAK	
1.H.E. LANAK EZ DIO KALTERIK EGITEN OSASUNARI	
H.1.1 Kalteak prebenitzeko eta osasunaren hobekuntza sustatzeko behar den jakitatea sortzea, eta, horretarako, generoak laneko segurtasun eta osasunean duen eraginean sakontzea, bai eta jakitate horren hedapena kudeatzea ere, enpresetan eta lantokietan erabil dezaten.	
H.1.2 Arriskuen kudeaketa sustatzea, prebentzio-jardunaren printzipioen arabera, eta lan-baldintzak hobetuz, arreta berezia jarrita teknologia eta lan-molde berrien ondoriozko arriskuetan, sektore feminizatuetan eta prebentzio-estaldura txikiena dutenetan.	
2.H.E. LANEKO OHITURA SEGURUAK ETA OSASUNGARRIAK	
H.2.1 Enpresarien eta langileen artean laneko arriskuen prebentzio-zereginetan jardute arduratsua eta inplikazioa sustatzea, jarrera hauek lortzeko: <ul style="list-style-type: none">○ Aitzindaritza enpresariei dagokienez, baliabideak emanda laneko arriskuen prebentziorako, kudeaketan sartuta eta parte hartzeko egoerak sortuta.○ Parte-hartze aktiboa langileei dagokienez, jakinda beren segurtasuna, osasuna dela, eta lanean bizi-kalitatea hobetzea.	
H.2.2 Enplegu osasungarria lortzeko helburuan inplikatzeko gizartea, herritarrei zeregin aktiboa emanaz laneko arriskuen prebentziorako kontzientzia soziala eskatzeko eta sortzeko.	
3.H.E. ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA	
H.3.1 Gizarte-eragileen arteko elkarrizketa eta lankidetzak sustatzea laneko segurtasun- eta osasun-helburu komunak bilatu eta lortzeko.	
H.3.2 Enpresetako prebentzio-jardueraz arduratzen diren eragileen jarduna sustatzea, eginkizunak inplikazioz eta profesionaltasunez bete ditzaten.	
H.3.3 Laneko segurtasun eta osasunean inplikaturako eragileen arteko harremanak bideratzen administrazio publikoak betetzen duen zeregina sustatzea eta eragile horiekiko lankidetzak sendotzea.	
4.H.E. LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ETA BIZI-KALITATEA ETENGABE HOBETZEA	
Enpresaren ezaugarrietara egokitutako prebentzio-kudeaketa txerta dadin sustatzea, tamaina, jardura eta arrisku-maila kontuan hartuta, eta bereziki honako hauek oso aintzat hartuta	H.4.1 ETEak eta mikroETEak.
	H.4.2 Arrisku handieneko enpresak eta jarduerak.
	H.4.3 Lehen sektorea.
5.H.E. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA AITZINDARI LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAN	
H.5.1 Administrazio Publikoak inplikatzeko beren aitzindaritza erakuts dezaten, eredu izanik eta beren erakundeetan laneko arriskuen prebentzioaren garapena galdeginez eta ikuskatuz, genero-ikuspegia kontuan hartuta .	
H.5.2 Efikaziaz eta efizientziaz betetzea legediak araudia aplikatzeko eta betetzen dela kontrolatzeko aholkularitzaren, laguntza teknikoaren eta arduraren esparruetan Administrazio Publikoari esleitzen dizkion eginkizunak.	
H.5.3 Administrazioen eta erakunde publikoen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzea, helburu erkidetako identifikatuta, eta baterako jarduketak garatzeko itunak eginda.	



HELBURU OPERATIBOAK

6.H.E. GORABIDEAN DAUDEN LANEKO ARRISKUAK KUDEATZEA ETA ZEIN DIREN JAKITEA, GENERO- IKUSPEGIZ LANDUTA

H.6.1 Teknologia-arlo berritzaileetan **prozesu eta produktu berriak** garatzeari lotutako arriskuak.

H.6.2 Lana antolatzeko moduen eta laneko harremanen esparruan izandako aldaketen (bereziki azpikontratazioaren) ondoriozko arriskuak.

H.6.3 Langileek mundu globalizatuan gero eta **mugikortasun** handiagoa izatearen ondoriozko faktore eta eragile berrien eraginpean egoteagatik sortutako arriskuak.

7.H.E. LANA PERTSONEN EZAUGARRI ETA GAITASUN ALDAKORRETARA EGOKITZEA

H.7.1 Laneko arriskuen prebentzio-arloko premiei heltzea, **langileen ezaugarri espezifikoak** kontuan hartuta: adin handia; esperientziarik gabeko gazteak; migratzaileak eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak. Genero-ikuspegia erabilita, sekzioarteko ikuspuntuarekin.

H.7.2 Istripuen edo gaixotasunen ondorioz gaitasunak gutxituta dituzten pertsonak **berriz ere laneratu, gaitu edo kualifikatu daitezten** sustatzea.



3.5 BALANTZEA ETA PROPOSAMENAK

3.5.1 2015-2020KO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIAREN BALANTZEA

2015-2020ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren balantzea egitean, aztertu behar da, alde batetik, zer-nolako garapena eta eragina izan duen ezarritako helburuez den bezainbatean, eta, bestetik, zer egin den strategiaren hedapen, gauzatze eta jarraipenaren aldetik.

Aurreko ataletan, estrategian zehaztutako lan-ildoak garatzeko balio izan duten jarduketa nagusiak azaldu dira, eta ezarritako helburuak lortzen nola lagundu duten aztertu da.

Nabarmendu beharreko lehen ondorioa da helburu horiek asmo handikoak direla, eta bost urtean lortzen zailak.

Hala ere, egindako berrikuspenak argi uzten du bide sendo bat egin dela ikuspegi horretarantz, eta bidean oinarriak jarri direla ikuspegia hurrengo urteetan lortzeko. Azterketak, gainera, aukera ematen du hobekuntzak identifikatzeko helburu eta jarduera-ildo batzuen ikuspuntuan, argi uzteko zein diren arazo handienak dituzten arloak eta, hitz batean egin beharrekoak doitzeko.

Estrategiaren hedapena, garapena eta jarraipena egiteko kudeaketari dagokionez, esan behar da sistematikotasun gutxikoa izan dela, egia izan arren garrantzi handiko kontu batzuek eragin diotela; besteak beste, legealdi-aldaketak eta 2016an gobernu berria eratu izanak.

Era berean, lan-ildoen garapena eta aurrerapen-adierazle nagusiak Osalaren jarduera-memoretan dokumentatu dira, eta erakundeko Kontseilu Nagusiak gainbegiratu ditu, strategiaren garapenaren arduradun nagusia izaki.

Hala ere, strategiaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak prestatzea da berrikuspen honetan nabarmendutako hobekuntza-arloetako bat.

Azkenik, strategiaren garapenarekin zerikusia duten eragileen iritzia bildu da berrikuspen honetan. Aho batez adierazi dute tresna baliagarria dela modu ordenatuan bultzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko laneko segurtasun- eta osasun-arloko jarduketak.

Nolanahi ere, guztietan ikusi da gogo sendoa dutela etorkizunean lanean eta lankidetzan jarraitzeko, eta, horrenbestez, strategiaren filosofia laburtzen duen ezin utzizko helburua lortzeko: "Lan-ingurune osasugarria, bizitza osasuntsurako osagai".

3.5.2 PROPOSAMENAK

Ondoren, estrategia- eta betearazpen-mailan egin beharreko proposamenak biltzen dira, bai strategiaren indarraldia amaitu arteko 2019-2020 aldirakoak, bai ondoren gerorako diseinatuko den plana bideratzekoak. Kontuan hartu gabeko jarduera-ildoak edo birbideratze-premia dutenak joko dira proposamen estrategikotzat. Betearazpen-mailako proposamenek estrategia hau kudeatzeko tresnak hobetzea dute helburu.

Proposamen estrategikoak

- Laneko arriskuen prebentzioan **genero-ikuspegia** sar dezaten sustatzea:
 - ✓ Laneko segurtasunaz eta osasunaz genero-ikuspegiarekin aztertzeraz bultzatzea.
 - ✓ Prebentzio-arloko kolektibo profesionalak berdintasunari eta laneko segurtasun eta osasunari buruz sentsibilizatzea eta prestatzea.
 - ✓ Laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza-edukiak bideratzea lehen eta bigarren hezkuntzan, bai eta unibertsitate-graduetan ere.



- ✓ Dibulgazio-mezuak zabaltzea generoaren eraginari eta laneko segurtasunaren eta osasunaren beste errealitate batzuei buruz, eta ez bakarrik istripu larri edo hilgarriekin zerikusia dutenei buruz.
- ✓ Jardunbide onak identifikatzea.
- **Desparekotasun sozialen ondoriozko patologien** azterketa sustatzea, alde adierazgarriak dagoen ikusteko.
- Prebentzio-jardueren **kalitatea** sustatzea.
- **Berrikuntza** bultzatzea prebentzioaren arloan.
- **Lan egiteko molde berriei** lotutako arriskueta sakontzea, molde horietan lantokiak eta lan-harremanak ez baitiote jarraitzen eredu tradizionalari.
- Laneko arriskuen prebentzioa sustatzea gutxi egituratuta dauden sektoreetan: **zaintza-sektore, etxeko lanak**.
- **Esku-hartze osasungarriak sustatzea** eta enpresariak zabaltzea.
- **Araudiaren berrikuspena eta eguneraketa** sustatzea: Osasun Publikoari buruzko Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Segurtasun- eta Osasun-arloko Lanbidearteko Akordioa; berdintasun-arloan akordioak hartzea sustatuta.
- **Jakitatea osorik kudeatzeko guneak eta tresnak** sustatzea, bai eta **ekintzailetzarako guneak** ere, laguntza eman diezaieten eragileei muntako ekimenak ezartzeko laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan, teknologia berrietan oinarritutako plataformak sortzearen bidez, eta gizartearen parte-hartze aktiboarekin.

Betearazpen-mailako proposamenak

- Estrategiaren **jarraipen** sistematikoa egiteko **organoak eta mekanismoak** aktibatzea.
- Alderdi kritikoei buruzko **adierazleak** izatea, emaitzak ebaluatzeko eta jardueren/prozesuen jarraipena egiteko, Europako eta Estatuko estrategiekin alderatzea ahalbidetuta.
- Lan-ildo eta jarduketa ekonomikoak eta pertsonen zein bitarteko materialei dagozkienak garatzeko behar diren **baliabideak** dimentsionatzea.